



Imanol LARRAÑAGA
Bortz urte preso eman
ondotik etxean → 11

BERTSOLARITZA → 10
Nafarroako Txapelketako
finala martxoaren 20an

DONEZTEBE → 17
Txirrindularientzako
bidea 2012rako egina

GIZARTEA → 18
Adinekoentzako bainuetxe
programa abian

BAZTAN → 24
Baztan 15 herriena dela
oroitarazi dute alkateek

SARA → 32
Sara Korrika Trail
lasterkaldia 28an



Gaur egun, aitek eta amek
etxetik kanpora egiten
dute lan. Eta eguneko
ordu aunitzetan umeak
zaintzeko haur eskolak
izan dira aterabideetako
bat. Bertze batzuek,
ordea, aukerarik ez
dutelako edo nahia-
go dutelako, atautxi-
amatxien ardurapean
uzten dituzte umeak.

ERREPORTAJEA → 4-5

GURASOAK LANERA ETA UMEAK HAUR ESKOLARA

Haur eskolen eskaintza zabaltzen ari da bizimodu berriak eskatuta

ELKARRIZKETA → 3

**Ohorezko euskaltzain
izendatu dute Pakita
Arregi aresoarra**

Soziologia eta Politika
Zientzietan Doktorea
da Pakita Arregi.
EHUko Hezkuntzaren
Soziologiaren
katedraduna
izandakoa erretiroa
hartu arte, eta
ohorezko irakaslea
gaur egun. Berriki
ohorezko euskaltzain
izendatu dute.



Pakita ARREGI | Aresoko ohorezko euskaltzaina



ARGAZKIA: GERARDO BENGOA

KIROLA → 31

Urrezko Aizkoran Larretxeatarak txapeldun

Otsailaren 27an jantzi zuten Donato eta Oihan La-
rretxea aita-semeek Urrezko Aizkolarren txapela.



ORDOKI

altzariak

Estilo ugariko mogleak



ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tel. 948 63 77 80 • LESAKA

KENZAZPI

MARTXOAK
20
LARUNBATA

LURJOTAK: **DJNASH DJJULEN**

00:00 - 12€ Aurretik 15€ Bertan

Salmenta puntuak: Elizondo: Antxitonea, Txokoto | Lesaka: Abaspi | Iruña: El Infiernito

KRISI-KONTRAKOGAUA

MARTXOAK
27
LARUNBATA

LURJOTAK: **DJNASH**

01:00 - 02:00 - Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

Lur

WWW.LURELIZONDO.COM



ETALAISTER...
CHUCHIN, KAOTIKO,
BARRICADA, S.A...

Zerrenda luzea du Pakita Arregik bere curriculumean: Soziologia eta Politika Zientzietan Doktorea da. EHUko Hezkuntzaren Soziologiaren katedraduna

izan zen erretiroa hartu arte. Bertan, Euskal Hizkuntza eta Euskararen didaktika irakatsi zituen. Horrez gain, Joannes Etcheberriy Andereño Eskolako Ikasketen arduraduna

izandakoa da. Eta Ohorezko irakaslea da egun EHU-n. Zaila da urteetan egin duen lan oparora lerro gutxitan laburtzea. Gainera, berriki ohorezko euskaltzain izendatu dute.

Pakita ARREGI | Aresoko ohorezko euskaltzaina

«Euskara bidea da, zoriontsuago izateko eraikiz joango garena»

G. PIKABEA | ARESO

Zergatik euskararekiko interesa hori?

Lehenbizi etxetik jaso nuen ondarea izan zelako, etxean ez ziguten esaten euskara maitatu behar zenik, ez zen beharrik, berarekin hazi eta hezi ginen eta, bigarren, euskara diktaduraren jazarpen suntsitzaileak zeharo gutxiagotuta utzi zuelako. Gertaera haren aurrean euskararen militantziarako bultzada kristau mugimenduetan bizitako esperientziari zor diot.

Zein da Euskaltzaindiari egiten ahal diozun ekarpena?

Euskaltzain urgazlea aspalditik izan naizen arren ez naiz Euskaltzaindikoko ohiko hizkuntzalari teorikoen edo analitikoena lan egiten ibili, nire, hizkuntza aplikatuaren esparruan izan da, euskara irakaste lanean, bere ekoizpenen analisisian eta, apurka-apurka nire bizitzan Euskaltzaindiak eskatu dizkidan zereginen erantzun didala uste dut. Hizkuntzaren eta hezkuntzaren soziologian ibili naiz eta esparru horietan euskarak duen zerikusia ere landu dut. Lan horrek orain eskatzen didatena irerantzuten lagunduko didala uste dut.

Ardurarik sortzen al dizu kargu berriak?

Lehenengo esan behar dut, oso pozik aurkitzen naizela sekula ez espe-



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Pakita Arregi aresoarra ohorezko euskaltzain izendatu dute berriki.

rotako aipamen honengatik. Azken batean, Euskaltzaindiaren izendapena, erakundearen parte hartze berri baterako deia bezala hartzen dut eta ni horretarako, dudaren esperientzia eta egunerokotasunean ikasten dudana baliatuz, prest nago.

Zein dira Euskaltzaindiaren ildo nagusiak?

Ni sartu nintzenetik Euskaltzaindiak euskararen munduan erabakigarri izan ziren pausoak eman ditu, besteak beste: bat, Euskara Batuaren apustua eta irakasleen prestakuntza bermatzeko, euskara irakasten ari zi-

EUSKARA BATUA
«Euskara Batuan euskalkien zenbait elementu errekupe-ratuko bagenitu, ia konturatu gabe askotan duen kamuts kutsua bigundu eta bide batez aberastu egingo luke»

ren taldeentzat azterketak antolatzea izan zen; bi, Euskaltzaindiaren eza-gutza zabaltzeko hiri eta herriekin ireki zuen harremana, hiru, hizkuntzalariak ez ezik beste disziplinetako kideak sartzeak hizkuntzari oparotasuna erantsiz Euskaltzaindiari eta azkenik, lanerako egitura osoa eraikitzea, antolatzea eta aurrera ateratzea, garapen izugarria izan da.

Euskalkiak eta Euskara Batua. Zein toki behar luke bakoitzak?

Euskara Batua tresna erabakigarria izan da Euskara zegoen leizetik atera-

zteko. Erabaki horren indarrez sortu ziren besteak beste, euskara ikasteko hainbat metodo eta literatura egiteko modu berriak... Euskara Batuak kritika asko izan zuen baina ezinbestekoa zen. Eta batua erabiltzen genuen ikasleekin hitz egiteko gai izan nahi bagenuen. Horrek eraman nau askotan, Aresoko euskara ez erabiltzera, kode hau, etxeokoen eta oso hurbilekoekin bakarrik erabiltzen nuelako. Euskara Batuan euskalkien zenbait elementu errekupe-ratuko bagenitu, ia konturatu gabe batuak askotan duen kamuts kutsua bigundu eta bide batez aberastu egingo luke.

Nola ikusten duzu Nafarroan euskara?

Nafarroan izugarriko potentziala dago herritarrengan: betiko euskaldunengan, euskaldun gazte eta hain gazteak ez direnengan eta euskaldun izan ez diren zenbaitengan joera baikorra ikusten dut. Herritargoaren beste aldean, eta gaztelaniadunak izan diren eta izan nahi duten beste gizarte arlo bat dugu. Baina guztiak parean jarri eta poli-ki-poliki euskararen aldeko gizarte garatu daitekeela uste dut. Euskara ez da helburua, bidea baida; gaur bihar eta etzi gusturago bizitzeko, zoriontsuago izateko eraikiz joango garena.



Berako Mukixu Haur Eskolan jateko orduan.



Doneztebeko Askin Haur Eskolan umeak margotzen.



Leitzako Haur Eskolako umeak jolasean.



Sarako Haur Bilguneko neska-mutikoak eskiatzen izan dira negu honetan.

HEZKUNTZA → 0-3 URTEKO HAURRAK

Eskualdeko 200 bat umek haur eskoletan pasatzen dituzte gurasoen lanorduak

Bertze aunitzek atautxi-amatxiengana jotzen dute

Familia egitura aldatu egin da. Gero eta gehiago dira etxetik kanpo lan egiten duten aitak eta amak. Baina horrekin, haurrekin zer egin erabakitzeko buruhausteak ere izaten dira

maiz. Batzuek, sakelak ahalbidetzen badu eta aukera baldin badute, haur eskoletara eramaten dituzte umeak, baina bertzeek atautxi-amatxiengana jotzen dute laguntza eske.

G. PIKABEA

Denetariko kasuak daude eskualdean. Ume batzuk haur eskoletan egoten dira gurasoak lanean daudenean, eta atautxi-amatxierekin egoten denik ere bada. Baina azken urteotan uga-

ritu egin dira 3 urte artekoen egoitzak: Elizondo, Leizta, Bera eta Donezteben, adibidez, 196 ume daude haur eskoletan. Horiek dira haundienak, baina badira gehiago ere.

Guztietan haundiena **Baztan**goa da. 20 urte-

tik goitiko ibilbidea du haur eskolak Baztanen, baina joan den urtean eraikin berrian hasi zuten ikasturtea. Italiako Loris Malaguzziren ereduaren oinarrituz eraiki dute, eta arreta haundiz egokitu dituzte instalazioak. «Esko-

la hurbila, ttikia eta transparentea» izateari garrantzia ematen diotela nabarmendu digu Kristina Goñi zuzendariak, baita «familiari» ere. Gaineratu digunez, «espazioak garrantzia handia du, hezitzaile bat gehiago da».

Berako Mukixu Haur eskolan «izugarritzko ilusioarekin» ari direla aipatu digu Anabel Arburua arduradunak: «kalitatea eskaini nahizik, haur bakoitza den bezala onartuz, errespetatuz eta bere nortasuna eraikitzeko behar dituen baliabideak eskainiz». Halere, lana behar bezala egiteko traba «aunitz» dituztela aitortu digu: «haur gehiegi hezitzaile bakoitzeko».

Doneztebeko Askin Haur Eskolan ere «kalitateko zerbitzua» eskaintzen saiatzen direla adierazi digu Diana Bruño zuzendariak. Eta jantokiko zerbitzua «azpimarratu» digu: «hemen egiten da janari guztia, guk erositako eta guk prestatua da, eta

horrela kalitatea aunitzez haundiagoa da».

Leitzako Haur Eskolan ikasturte hau «berezi xamarra» dela erran digu Maxux Sukuntza ordezkariak. Azken bost urteotan hiru gela izan dituzte eta denak beteak. Aurtentzen, baina, matrikula guttiago izanik bi gelek moldatzen dira. «Azken urteetan jangela ere izan dugu, baina aurtentzen ez, eskaera gutxitu delako». 1-3 urte arteko haurrak hartzen dituzte, baina Sukuntzak azaldu digunez, «0-1 adin-tartekoei ere zabaldu nahi zaie».

Desberdin funtzionatzen dute **Saran**, eskolan dabilzan haurrei eskaintzen baitiete zerbitzua. Mainer Olasso arduradunak kontatu digunez, «Haurtzaindegian haurrak eskolara sartu baino lehen eta atera ondotik atxikitzen ditugu». Horrez gain, umeen opor eta gurasoen lan egunetan Haur Bilgunea zabaltzen dute goiz eta arratsaldean.

BAZTAN HAUR ESCOLA

Italiako ereduan oinarritutakoa

- 0-3 urtekoen zerbitzua.
- 72 haur (Baztan, Urdazubi, Sunbilla eta Ituren).
- Haur eskola zaharrak. 20 urte egin zituen, eta berria iaz zabaldu zen.
- Udal haur eskola da, baina kudeaketa pribatua du. Halere, Udalak eta Gobernuak arautzen dute funtzionamendua.
- 07:45etik 16:15era zabalik (lau eta zortzi orduko zerbitzuak: 09:00-13:00 eta 08:00/ 09:00-15:00/16:00).
- Jangela aukeran.
- Instalazioak: plaza-erdigunea, guraso, hezitzaile eta haurren elkargune eta jolastokia-, 3 kubo -adinararen arabera, bakoitzak gela, komuna eta jangela-, tailerrak...
- Kuota gurasoen errentaren arabera.

BERAKO HAUR ESCOLA

Kudeaketa pribatua duen eskola

- 0-3 urtekoen zerbitzua.
- 51 haur (Bera eta bakar batzuk Bortzirietako bertze herrietakoak).
- 2003tik zabalik.
- Udal haur eskola da, harrera publikoa duena, baina kudeaketa pribatua du. Hala ere, Nafarroako Gobernuak eta Udalak arautzen dute funtzionamendua.
- 08:00etatik 16:00etara irekia (4 eta 7 orduko zerbitzuak aukeran: 08:00/ 09:30- 12:00/13:00-15:00/16:00).
- Jangela aukeran.
- Instalazioak: haurrentzako lau gela, bi logela eta bi komun, patioa eta laster bertze gela bat, jangela eta psikomotritaterako erabiliko dena...
- Kuota gurasoen errentaren arabera.

DONEZTEBEKO H. E.

Urtebete eskola berrian

- 1-3 urtekoen zerbitzua.
- 44 haur (Doneztebe, Sunbilla, Donamaria, Legasa, Zubieta eta Ituren).
- Joan den urtean zabaldu zen.
- Udal haur eskola da, langileek Udalarentzat egiten dute lan.
- Goiz-arratsaldez zabalik (lau eta zortzi orduko zerbitzuak aukeran: 07:30-15:30/ 09:00-17:00/ 09:00-13:00).
- Jangela aukeran.
- Instalazioak: haurren bi gela -bat bikoitza eta bertzea sinplea-, erabilera anitzeko gela, tailerrak egiteko gela, patioa...
- Kuota gurasoen errenta aitoren arabera.

LEITZAKO HAUR ESCOLA

Aurten eskaera ttikia

- 1-3 urtekoen zerbitzua.
- 29 haur (Leitza eta Areso).
- 1988tik zabalik.
- Udal haur eskola da. 2003an Udalak eta Nafarroako Gobernuak sinatutako akordioaren bidez, finantzazioa Udalak, Gobernuak eta gurasoek egiten dute.
- Aurten 08:00etatik 13:00etara zabalik, eskaera ttikiagatik. Aurreko urteetan 08:00etatik 16:00etara.
- Jangela zerbitzurik ez aurten, eskaera ttikia izan delako. Aurreko urteetan, ordea, izaten zen.
- Instalazioak: hiru gela, bi patio, lorategia, tailerrak...
- Kuota gurasoen errentaren arabera.

SARAKO HAURTZAINDEGIA

Eskolan ari direnentzako zerbitzua

- Haurtzaindegia 2-11 urtekoentzat da eta ikastetxera sartu aitzineko eta ikastetxetik atera ondorengo zerbitzua da. Opor egunean Haur Bilgunea zabalik, 3-12 urtekoentzat.
- 20-30 haur (Sara, Urdazubi eta Senpere).
- Herriko Etxeak iaz hartu zuen ardura, ordu arte Larrun Ttiki elkarteak kudeatu zuen.
- Haur Bilgunearen ordutegia 07:30-18:30; Haurtzaindegiarena 07:30-08:50/16:30-18:30.
- Jolastokia, liburutegi bilakarazten ari diren gela, panpinen txokoa...
- Kuota, Haur Bilgunean eguneko 10 euro eta Haurtzaindegian 2 euro eguneko.

URDAZUBIKO MIKELI AZKARRAGA BILOBEN UMEZAIN



Urdazubiko Mikeli Azkarraga, Mirari biloba besoetan duela.

«Bere lana ematen du, baina gustura nago»

Zure alabak eta euren bikoitekideak lanean ari al dira?
Bai, hala da. Baina ongi moldatzen gara. 13 urteko bertze alaba bat ere badut eta bera eskolatik etortzen denean, berak ere laguntzen dit.

Zenbat denboraz edukitzen dituzu?

Asteartetik ortziralerara 09:00etatik 19:00etara. 11 eta 18 hilabete dituzte eta aste batean bat, eta bertzean bertzea atxikitzen

du, aldian batto. **Gustura egoten al zara umekin edo lan handia al da zuretzat?**

Bere lana ematen du, baina gustura nago eta haurrek eta alabak ere kontent dira. Gainera, hemen ez dago bertze lekurik haurrek uzteko. Batzuek Sarara eta Elizondora eramaten dituzte, baina pena da hemen haurrendako horrelako tokiak ez izatea.

GOIZUETAKO M^a PILAR ESKUDERO BILOBEN UMEZAIN



Goizuetako M^a Pilar Eskudero bere bilobekin.

«Bilobekin nagoenean, disfrutatu egiten dut»

Noren haurrek zaintzen dituzu?

Alde batetik, alabaren bi mutikoak eskolara eramanean, bazkaria eman eta eskolara eramaten ditut. Gero 18 hilabeteko beste biloba bat ere badut, eta amak lana baldin badu, kalerara ateratzen dut. Beste bi mutiko biloba ere baditut, eta arratsaldean ama lanean badago, nirekin izaten dira. Gainerako bilobak Hernanin bizi dira.

Zer egiten duzu eurekin?

Paseatu, jolastu... Denetarik. **Lan handia al da zuretzat?**
Batzuek hala esaten dute, baina niretzat ez. Oso pozik egoten naiz eurekin. Gainera, alar-gun gelditu nintzen eta bilobak nire bizipoza izan dira. Bilobekin nagoenean, disfrutatu egiten dut.

Zure seme-alaben heziketa eta bilobena diferentia al da?
Bai, oso diferentia.

**Nire txanda**

Joseba URROZ

Putreak, iluminatuak, euskara

Bertsolari batek barrenak hustu dittu, miña sortuz. Berak ez zuen erririk, guk aldareratu giñun. Iñautik bailitzan, bota dezagun sutara jauntxua, ta gure burua ere bai bera gores-tegatik! Ezkontza gehigarriak ateratzia ezta euskararen alde egittia, ezta elitezko bertsolari txapelketak irabaztia edo «plei»-akin justetan EuskalTelezaBorran agertzia ere. Nik Ttipi-Ttapa laguntzen dut ia muxutruk, nik ere nahi baitut nere «ego» ahula bazkatu, berrietan izena agertuz edo hemen argazki ta guzi nere barrenak hustuz. Bertako jende arruntak ere gustuko du Ttipi-Ttapa, denok ezpaigara txapeldunak! Iñork ez gaitu epaituko ez badugu euskara laguntzen, lasai. Gure bihotz eta buruetan dago, txukun ta maiz mintzatza da egin dezakeguna; nik bertsolari txapelduna ere «euskal-ñolez» maiz entzun dut! A que bai?

Bertako jende arruntak ere gustuko du Ttipi-Ttapa, denok ezpaigara txapeldunak!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Itxaropen printza Zalainen

Lan arloko berri goibelei halako itxaropen printza bat marraztu diete Zalaingo langileek, mobilizazioen bidez lortutakoak. Egia da iraila bitarte EREan segituko dutela, baina hori bukatutakoan lantegiak etorkizunik izanen zuen ere kezka zuten. Baietz dirudi. Kaleratzerik ez dela izanen hitz eman die enpresak, idatziz. Eta erregulazioa modu egokiagoan banatuko dela langileen artean.

NabarmentzekoakMirentxu GOIENETXE
Amaiurko aktorea

Carmelo Gomez, edo Unax Ugalde bezalako aktore famatuekin batera, *Baztan* filmeko protagonistetako bat antzerkian aritua zen Mirentxu Goienetxe amaiurtarra da.

Abel BARRIOLA
Pilotari leitzarria

Lesio larri batek eragindako urtebeteko gurutzebidearen ondotik martxoaren 12an berriz ere kantxetara bueltatu zen Leitzako pilotari handia. Non eta herriko Amazabal pilotalekuan.

Igor BABAZE
Zubietako kirolaria

Apustu sukar garaian gaude, ez da dudarik. Zubietako gazte honek herriko zubitik Loitzateko atakarainoko bidea 51 minutu eta 39 segundotan egin zuen lasterka. Bada zerbait!

Atzera begira → 1995.03.16 / TTIPI-TTAPA 154. zbk**Hogei urteren ondotik, pilota utzi zuen Antton Maizek**

1975ean debutatu zuen pilotari profesional bezala Antton Maizek, Arantzako Petrisenekobordako semeak. Hogei urteren ondotik, 1995ean erretiroa hartu zuen eta martxoaren 3an omenaldia eskaini zitzaion Bilbon, *Eskerrik asko, Antton* izenburupean. Tartean, eskuz binakako borts txapel jantzi zituen (errekorra oraindik bere esku dago) eta bigarren mailakoa ere irabazi zuen buruz buru. «Hogei urtetan satisfakzio handiak eman dizkit pilotak», zioen Maiz II.ak TTIPI-TTAPARI eskainitako elkarrizketan. Argazkian, Pierola almandoztarrarekin.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranbxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tيرادa 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitzua, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitzua15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Euskara Batzordeko erabaki arduragabea!!!

Gotzone REKONDO (EHE)

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileko EAJko hiru ordezkariak eta Aralarako hartutako erabakia eta jarrera onartezina da. Zoritxarrez, gai hau ez da berria. Badira urte batzuk hasiak zirela trabak jartzen hamaika aitzakia direla medio. Aurten, krisia omen da arazoa, urte honetan hasi omen da larrutik bortziritarrok ordaintzen ari garen krisi madarikatua! EAJtik sorpresarik ez, betiko ildotik jarraitzen dute.

Aralarrekoa, zer erran, alderdikeria ote?? Edo meneko zintzoak dira? Auskalo! Baina ardi ttikia beti bildots izanen da! Lotsagarria da beraien burua alderdi nazionalizatatzat izatea eta euskarari behar duen babesa ez ematea!!!

Nafarroako Gobernuak diru iturriaren mozketarekin batera, murrizketa hau heldu zaigu eta beraien informazio hori badute; horregatik ez dute barkamenik, urteetan egindako lana pikutara botatzea bortz axola baitzaie, jarduera batzuk ezin izanen baitira aitzinera eraman... borondate faltagatik! Euskaltzale bezala haserre nago, zehazkiago sutan nago, ez baitut ulertzen euskarekiko erakusten ari diren konpromiso eza. Izan ere, ez dago eskubiderik horrelako burugabekeria egiteko. Nire iritziz, lehentasun osoa izan beharko luke euskararen sustatzea... alabaina, txin, txin, diruaren hotsa tartean sartzen denean hauentzako akabo lehentasunak, printzipioak, sentimenduak, hartutako konpromisoak... eta Koherentzia!! Gaur hitza eman eta bihar haizeak eraman! Bajatzela beraien dietak eta beraien karguen diru sarrierak, ken ditzatela bestetako oturuntzak, akabo hautetsien mugikorrek, dei dezatela Herriko Etxeko telefonotik! Bai to, sosaren kontua da beraien buruko min bakarra; gure sosak jakitera zein «proiektu»tan edo zertan xahutzen dituzten, alegia. Argi dagoena da euskararen normalizaziorako ez dutela aitzin pausurik eman nahi; kontrakoa, gibelera egiten ari gara horrelako erabakiekin. Eta jakin nahiko nuke bertze arlotan gauza bera gertatu ote den; hau da, diru murrizketa Euskara Mankomunitatean gertatu da bakarrik? Ez dut erantzunik behar, On Pello Apezetxearen gutuna (Ttipi-ttapa 2010/03/03) irakurrita badakit aurpegiarik ez dutela eman behar pisuzko azalpenak ez ditzutelako. Eta berriz diot: Alderdi «zintzo» hauek gaur hitza eman eta bihar haizeak eramaten du; tamalez hori da soil-soilik demostratzen ari direna behin eta berriz. Negargarria da hauen jokaera. Nahi izatea da ahal izatea! EAJ-k eta Aralarrek, alta, errazena egin dute: diru iturriaren %35ean murriztu, zentzuzko aterabidea bilatu gabe. Eta bukatzeko, ea inoiz konprenitzen duten: Borondatea eta gogoia den tokian, aldarrikatu ez!

«Jarduera batzuk ezin izanen dira aitzinera eraman borondate faltagatik!»

Guztiaren eta denen beharra dugu ttipi-ttapan, bai noski!

Aitor AROTZENA

Ba bai... Batzuk diruaren beharra dugu bizirauteko (ez aberasteko). Halakoxe mixerableak gara. Ezkontza gehigarrien beharra dugu, moda gehigarriena, kirol, besta, feria eta Eguberrietako gehigarriena, eskualdeko Telefono Gidarena. Iruñeko jauntxoek banatutako diru apurren beharra genuen Ttipi-Ttapa Telebistan hameka urtez ahalik eta lan txukunena egiteko. Jakina, langile gehienek bezala, mezezi baino soldata ttikiagoren eta lan-ordu gehiagoren truke. Nahi baino errepikapen gehiago eman behar izaten genituen, baliabideek ez zutelako gehiagorako ematen. Baina baten batek soluzio magikoa topatu du: telebista duinago baten alde borrokatu beharrean, edo hori soberaxko eskatzea bada, telebista katez aldatu edo itzali beharrean (aspergarria behar du izan publizitatea bertzerik ez duen kate batean hogeit errepikapen ikusten egotea), Jauntxoei eskerrak eman Ttipi-Ttapa Telebista dirulaguntza ukatuz itxiarazi zutelako eta langileak, esplotaziotik askatuz hori bai, langabezira bidali zituztelako. Zein euskara aholkulari bikaina galdu duen Sanz jaunak!

Eta aldizkariak ere zer erran. 30 urte dituen aldizkariaren agertzen diren berriak ez omen dira publizitatearen apaingarri bertzerik. Eta berriemaileak? Beharrik bakarren batek begiak ireki dizkien! Borondateak bai, baina tonto hutsak! Hamabostero berriak bilatzen jauntxo bat aberasteko eta albisteak publizitate azpian, hor nonbait, ezin bilatuz ibiltzeko erabiliak. Horien beharra ere badugu. Baita hamabortzero publizitatea sartzea erabakitzen duten denda, ostatu, jate-txe, autonomo eta gainerakoena ere. Horien propaganda behar dugu, ez bakarren batek bertze tokian (debalde?) egiten digunarena.

Izan ere, beharrik debalde den Ttipi-Ttapa, bertzenaz *de qué?* Bortzirietan eta bertze zenbait herritan doan hartzearen arrazoia Mankomunitate eta Herriko Etxeen dirulaguntza da eta horien beharra ere badugu. Baina udalek osorik ordaintzen ez duten herrietako harpidedunak edo eskualdetik kanpokoak, gezurra badirudi ere, urteko saria ordaintzeko prest daude publizitatea bertzerik ez duen aldizkaria etxean hartzeko. 6.000 harpidedun ergel. Eta horien beharra ere badugu. Inori ez baitzaio Ttipi-Ttapa harrarazten. Izenabizenak, helbidea eta telefonoa emanez (ordaindu behar dutenek bankuko datuak ere) deitu edo idatzi behar da eta eskatu. Hainbertze publizitatearekin aspertu eta hartu nahi ez duenak erraza du, baja eman eta kitto! Baina denen beharra dugu, bizirauteko eta, gure apaltasunean eta ttikititasunean, ahalik eta aldizkari txukunena eskaintzeko. Eta iruditzen zaigu euskarari mesede egiten diola Ttipi-Ttapa ere. Ezinbertzekoa ez da inor, baina hainbat etxetan hamabortzero sartzen den euskarazko idatzi bakarria Ttipi-Ttapa da. Eta horri eutsi nahi diogu, euskararen alde, bai noski, euskararen alde.

Irakurleak mintzo

Foruzaingoa-
rekin bueltakaBaztango Ezker Abertzalea

2006an Baztango Udalak, NaBai eta UPN bat etorrite, Nafarroako Gobernuarekin hitzartu zuten Foruzaingoaren presentzia Baztanen. 2007ko otsailean Elizondoko bulegoa inauguratu zuten eta 2009an Foruzainen kuartelaren egitasmoa aurkeztu. 2010an adostu dute Kuartelaren behin betiko kokapena. Foruzainak ekartzeko aitzakia gauzez sasoi batean gertatutako mobiliario urbanoaren haustea izan zen. Eta aitzakia erraten dugu, gertaera itsusi horiek ez baitzuten justifikatzen polizi gehiagoren beharra.

Baztanera polizi gehiago ekartzearen asmoen kontra agertu da beti Ezker Abertzalea. Jarrera hau mantentzeagatik ezker abertzaleko hainbat kideei multak jarri zitzaizkien Elizondoko bulegoaren inaugurazio ekitaldian. Kuartelaren egitasmoa aurkeztu zenean gure jarrera mantendu genuen kontrako mobilizazioetan parte hartuz. Gure iritzie ere publiko egin genuen idatzi baten bidez.

Idatzi hartan batetik foruzainen jarrerarekin lotura zuzena zuten gertakari zehatz batzuk salatu genituen eta arras militarizatu dugun eskualdera polizi gehiago ekartzeari buruz hola erraten genuen: *Gure irritziz polizi gehiago eka-*

rri beharrean polizia hemendik alde egitea litzateke zuzenena. Egoeira aldatu ez denez hori aldarrikatzen segitzen dugu Alde Hemendik!

Bertzalde, mobiliario urbanoaren xehatze bolarak segida izan du erakutsiz polizi gehiago ekartzeko ez duela arazo hori konpontzen eta hezkuntza, elkarbizitza eta besta egiteko moduan egon daitekeela arazoaren iturrie, nola irtenbiderako eta konponketarako aukera.

Azkenik erran genuen *Polizi gehiago ekarri izanak errepresio forma guziek haunditu zituela eta elkarbizitza gaixotzen zuela.* Eta mehatxak, multek, jarraipenak, katxeoak... jendearenganako kontrolak ez du etenik izan.

Kuartelaren kokapen berrie adostu duten hontan, hainbertze hedatu den Kontrol Sozial hau marketin, publizitate kanpaina baten bidez lagundue heldu zaigu. *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* en laguntza-konplizearekin esplikatzeko zaigunez, Foruzainek ez dituzte herritarrek kontrolatzen, alderantziz, lagundu eta asesoratu egiten dituzte seguruago bizi daitezela. *Zaudete trankil herritarrek, gurea, poliziarrena, Lan Prebentiboa da. Zuek emandako informazioa behar dugu zuek babesteko eta zuek zuten burua babesten erakusteko.* Hortaz omen dabilta dendaz denda eta lantegiz lantegi. Ez da lehen aldia. Duela bi urte hasi ziren uestezko segurtasun

kanpaina honekin. Baina nor dugu etsaia? Non arriskue? Zein ebaslea? Lapur ttiki gutti gurean eta lapur handiena... horiena ederki dakigu. Edo gure buruarengandik babestu nahi gaituzte? Edo sortzen duten gastoa eta beren soldata justifikatu bertzerik ez dute behar? Edo bertze lan bat da benetan egiten ari direna? Edo azeria oilotegien sartzen ari da denen argazkie banan bana egiteko gosetzen delarik nork gehiago asetuko duen erabakitze? Huenegatik guziarengatik berriz ere garbi adierazten dugu ez Elizondon, ez Baztanen, ezta inon ere, Foruzaingorik ez!! Indar errepresiboa Alde Hemendik!

Putreak
haratustelez
elikatzen diraFernando ETXEBERRIA
(Ezkurrako boluntarioa)

Ttapi-Ttapako kolaboratzaile boluntario bezala, Xabier Silveira bertsolariak Garan «Euskara al da Putre egiten gaituela?» izenburupean idatzitako panfletoari erantzun beharra daukat. Aipatu panfleto horrek –ez du bestelako kalifikatzailek merezi-sorpresa haundia eragin dit, bai moduagatik eta bai edukiagatik ere.

Ttapi-Ttapako nire lagunak esplotatzaileak edo gainerakoen konturara bapoz bizi diren edo

UPN edo PSEren besotara ezkonduetako jendea dela kontsideratzea, iritzi –horrela deitzen ahal bazaio– guztiz bidegabea eta faltsua da. Oso ondo ezagutzen dut euren lana, askotan eskuzabaltasunez egina eta zailtasunez bete. Airegatik, bankuko maileguengatik edo euren familiaragatik biziko ote dira?

Eurei esker, 6.000 harpidedunei, eta Nafarroako Kutxaren *zuk aukeratu, zuk erabaki* programaren 1.000 kolaboratzaileei, eta boluntario «manipulatu», ezjakin eta konturatu gabe dirua irabazteko erabilitakoei esker, eskualde honetako herritar askok euskaraz irakurtzen dute, inguruan gertatzen denaz konturatzen dira eta eskertuak daude. Ondo legoke herri haueetan barna buelta bat emango bazenu eta euren hitz egin. Nafarroan, euskal kulturak bi etsai ditu: bat, administrazioa, krisiaren aitzakiarekin eta euskararen erabilera arma politikogisa erabiliz, laguntzak murriztu dituena. Silveira jauna, eskubide osoa dugu dirulaguntzak eskatzeko, guk ematen dugun diruaren zati bat baita, eta ez da inondik inora, lotsatzekoa, galtzak jaistekoa edo ezkontzea, laguntza exijitzea, eta ez da merkantilismoa helburu horretarako publizitatea erabiltzea. Ez al dute egiten bertsolari jaialdietako antolatzaileek? Ez da sarrerarik ordaintzen? Edo bertsolariak dohainik hartzen du-

te parte? Ez izan zikotza Silveira jauna. Joan zaitez, afari, dantzaleku, eskola, kartzeletara... dohainik eta euskaraz bizitzera anima itzazu, kultura esplotazioaren kontra eginez.

Ezkuturago dagoen beste etsaien multzoa, talibanena da, puruak, birjintasunezkoak, aherberoak, oso oso aurrerakoiak, Savonarola berri laikoak, sutan, norbere burua herriaren ordezkari bakar eta eskusibo izendatuz samintasunez kritikatzeko dutenak, eta eurek bezala pentsatzen ez dutenei gutxietsi, zapatu eta geziak botatzen dizkietenak, han goian mundu miragarriko urrezko burbuilaren barranean euren besaulkietan dauden jaunak. Ze polita e!

Lasai zaitez. Boluntarioa naizen aldetik ez naiz nire lagunek erabilia sentitzen, (ez naute erabiltzen) eta jakitun, pozik eta nire gogoz kolaboratzen dut Ttapi-Ttapan. Nire bizitzan –67 urte ditut– jende amargatu, ezkor eta insolidarioen egoera, iritzi, eraso eta beste ergelkeriak ezagutu ditut, gure harri-koskorra ekarriz, gehien maite duguna –gure hizkuntza eta gure aberria– ez hiltzeko kolaboratu dezakegula uste dugunoi zigortu nahi izan dietenak.

Zure geziak beste norantza batean zuzen itzazu, badakizu nora, eta esaten duzun bezala, «nik badut nire erantzuna». Hustu zaitez euren rekin, deskantsatu eta utzi bakean etxeoak.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTAPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57



Bota bertsoa

Patxi CASTILLO (Bera) • Neurria: Hamarreko haundia

Udaberriaren sorrera

Negu gogorra izan da aurten erotu zaigu zeharo! elurra ere egin du baina denok nahi baino gehiago ziklogenesi bortitz ta guzti Nafarrotik zen igaro orain azkenin erran dezaket esperantza osoz, klaro urtaro txarra bukatzeaz da ona iristear dago.

Klima_aldaketa entzuten dugu alde batetik bestera errealitatez ez hainen urrun sumatzen dugun antzera baina loreak datoz segidan gure paisaia berdera hau izaten da, ohiturak legez udaberriaren sorrera urte guztitan izaten dugun ziklo onena ote da?

11 galdera labur

Ispilea etxea noiztik da Barranka ostalua eta hostala?

Lehengo urteko udan 100 urte egin zituen.

Zein da urteetan negozioa martxa onean mantentzeko sekretua?

Lanasko egin eta jendearekin harreman onak izatea.

Zure atautxik paratu zuen negozioa martxan...

Bai, eta horregatik du Barranka izena, bera Sakanakoa zelako.

Gurasoek eman zioten segida eta orain zuk eta zure andreak. Etorzikuna nola ikusten duzu?

Nahiko ilun. Ostalaritzan ari den semea badut, baina momentuz, kanpoan egin nahi luke lan.

Barraren beste aldetik desberdin ikusten al dira gauzak?

Bai, beste mundu bat da. Hor entzun, ikusi eta isildu egin behar da.

Jaketan, zein da zure espezialitatea?

Ehiza garaian, ehizako platerak, eta gero, parrilan arrain eta haragi ona ateratzen dugula esaten dute. Andreamen etxeko postreak ere goxoak dira.

Zein da egunean lan gehien egiten duzun momentua?

Eguerdia.

Ez omen duzue krisirik nabaritu...

Egia esateko oso ongi egin dugu lan. Herrian ez dago beste ostaluri eta obra batzuk ere tokatu dira eta langileak hona etorri dira bazkaltera. Zortea izan dugu.

Jatetxetik jende ezagunak pasatu dira. Baten bat aipatzekotan?

Pilotari haundiak: Julian Retegi oso lagun haundia dut, Oinatz Bengoetxea ere bai, Irujo, Patxi Ruiz, Olaiola anaiak... Goenkaleko aktoreak ere pasatu dira eta Aitana Sanchez Gijon ere etorri zen, Ezkurran pelikua bat grabatzen aritu zirelako.

Nori zerbitzatuko zenioke gusturara?

Gusturana, lagunei.

Denbora librean, zeregi-tea gustatzen zaitzu?

Irakurtzea gustatzen zait, Interneten ere ibiltzen naiz pixka bat eta ehiza garaian ehiza, mendira joan eta lagunekin egoitea gustatzen zaidalako.



Jose Luis GOROSTIAGA → Ezkurrako Barranka ostalua

elika
Dietetika eta elikadura

- Ahulkerantz dietetika eta nutricionala
- Dieta personalizatuak
- Gopuztuzko konposizioaren aholkularia
- Elikadura heziketa

Itxura osasuntsua
Teguratuaren egiteko onak eta eraketa
Itxarotze eraketa eta onak
Mantentze gaitasuna

Itxar Andueza Larra
Itza, 6 behe - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

ANTZUZELAS
S.L.

Tel: 948 631 317

HARRI NATURALA

Ateratzen dituzten:

Arrozak	Sesamoa
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak

Agurak eta Berrak
Jaiak eta Berrak

ZINBARRAK KIDEMAK ZILAK

Ingiu errealitate
BERA

sarobe
geologia okidagis

Pr. de Arizaga 25 bajo 31700 Barañain
948 630899
www.sarobe.net

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

SEAT

HYUNDAI

Audi

ZOANSA

MARKA GUZTIAK KONPONKETA
Banaria, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel. 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

KULTURA

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TXAPELKETAREN 39. EDIZIOA

Zortzi bertsolari ariko dira Nafarroako txapelaren bila larunbat honetan Lesakan

Tartean izanen dira, Legarreta, Arozena, Terreros eta Zelaieta

TTIPI-TTAPA

Finalerdi guztiak bukatuta, larunbat honetan, martxoak 20, jokatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 39. edizioaren final handia. Orain arteko saioetan lortutako puntuazioaren arabera, zortzi bertsolari hauek ariko dira Lesakako udal pilotalekuan: Julio Soto (Gorriti), Arkaitz Goikoetxea (Lekunberri), **Xabier Legarreta (Arano)**, **Estitxu Arozena (Lesaka)**, **Oskar Estanga (Gaintza)**,

Xabier Terreros (Lesaka), Eneko Lazkoz (Etxarri-Aranatz) eta **Julen Zelaieta (Bera)**.

Nobedade dezente izanen ditu, beraz, aurtengo finalak. Alde batetik, Arkaitz Goikoetxeak eta Eneko Lazkozek lehenbiziko aldiz hartuko dutelako parte finalean, eta bertetik, joan den urteko finaletik hiruk baino ez dutelako errepikatuko: Julio Sotok, Xabier Legarretak eta Julen Zelaietak. Eskualdeko bertsolariak zortzitik lau dira.

ELIZONDOTIK LESAKARA

Aitzineko urtean finala zuzenean ikusi ezinik jendea gelditu zelako eginen da aurten Lesakako frontoian finala,


toki gehiago dagoelako. 17:00etan hasiko da finala.

JUAN PERURENA GOGOAN

Ezin aipatu gabe utzi joan den hilabetean hil zen Juan Perurena bertsolaria. Juan Goizueta jaio zen 1930ean, eta 1960an bigarren egin zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketan, Andres Narbarte *Xaltoren* gibeletik. Urte berean Euskal Herriko txapelketan ere parte hartu zuen. Arizkuna ezkondu zen, eta han egin zuen saio gehien. Bertzalde, aipatu, 2006ko Nafarroako Txapelketan, Perurena izan zela txapela Xabier Silveirari paratuziona.




Julio Soto




Arkaitz Goikoetxea




Xabier Legarreta




Estitxu Arozena



Oskar Estanga



Xabier Terreros



Eneko Lazkoz



Julen Zelaieta



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

POLITIKA → EUSKAL PRESOK

Bortz urte kartzelan egin ondotik, libre gelditu da Imanol Larrañaga preso

Larunbat honetan ongi-
etorria eginen
zaio Saran

TTIPI-TTAPA

Bortz urte egin ditu espetxean Imanol Larrañaga presoak, baina martxoaren 3az geroztik libre dago, etxean. Hala, Berara ailegatu zen egunean, herritarrek harrera beroa egin zioten. Horrez gain, larunbat honetan Saran omenaldia eginen diote beratar eta saratarrek antolatutako ekitaldian. Hasteko, harrera eginen zaio, gero bazkaria izanen da eta ondotik, kantaldia, bertso-lariak, gaiteroak...

2001eko martxoaren 23an atxilotu zuten, ETA-rekin harremana izatea egotzita. Gero aske utzi bazuten ere, epaitu ondotik, bortz urteko espetxe zigorra paratu zioten eta 2005eko urriaren 22an preso sartu zuten. Orain arte Zuerako (Espainia) kartzelan egon da.

Lurrazpiko aparkalekuak

Landazelaia inguruak -suhiltzaile parkearen on-

doa-, Altzate karrikarekiko duen hurbiltasuna dela eta, aparkalekuak egiteko leku egokia izan daitekeela uste du Udalak. Horregatik, jendearen interesa neurtzeko eta aparkaleku kopurua zehazten joateko deialuzatu du Udalak, Josu Iratzoki alkateak sinatutako bandoaren bidez, interesatuek izena eman dezaten. Udalak garbi utzi du izena emateak ez duela behartzen gero plaza erostera.

Aparkalekuak 2,5 x 5 metroko neurrikoak eta lurrazpikoak izanen lirarteke eta 15.000 euro gostatuko lirarteke. Izena Herriko Etxean edo 012ra deituta eman behar da, apirilaren 31 baino lehen.

1.300 lagun Salgai-Hondarren Ferian

Larun Haizpe elkarteak hirugarrenez antolatutako Salgai-Hondarren Feria arrakastatsua izan zen. Euro bateko sarre-
ra ordainduta 18 urtetik goitiko 1.300 lagun sartu ziren, iaz baino guttiago, baina 18 urtetik beheitikoak ere aunitz ibili ziren. Elkarteko kideek kontent gelditu ziren jendearen erantzunarekin.



ARGAZKIA: BITTORI TELLETXEA

Herritarrek ongi-etorri beroa egin zioten Imanol Larrañagari martxoaren 3an.



ARGAZKIA: ROSA ERRANDONEA

Ehun lagun Zuhaitzaren Egunean

Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatutako Zuhaitzaren Egunak arrakasta ederra izan zuen martxoaren 7an. Ehun bat lagun hurbildu baitziren Lizuniagara, eguraldi bikaina lagun, Udalak emandako bertako haritzak eta gereziendoak landatzera. Guzira 50 zuhaitz landare baino gehiago. Aurtengoan, berrikuntza gisara, zuhaitzei txartel bana paratu zieten, landatu duenaren izenarekin. Juan Otamendi, Ehiza eta Arrantza Elkarteko presidentek Udalari eskerrak eman nahi izan dizkio, zuhaitzak eman eta zuloak egiteagatik. Elkarteak, berriz, txistorra eta hirugihar bokadilloak eskaini zizkien auzolanean parte hartu zutenei. 25 urte baino gehiago dira egun hau antolatzen dela eta aurten inoiz baino parte-hartze handiagoa izan da.

Zalain
JATEXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t: 948 631 106 w: www.zalain.com

JAKONE-GOZOTEKIA

Alzate 19. BERA 948020788

okane
HARATEGIA / URDAITEGIA
Ttapi-ttapa | 514 zbk.
Ttapi-ttapa | 514 zbk.
Ttapi-ttapa | 514 zbk.

LESAKA

UDALA → ADOSTASUNIK GABE

Herriko karrika izendegi berria onartu da

Oninen ustez, «alkateak ez du herritarren iritzia kontuan hartu»

Aitor AROTZENA

Herriko karrika izendegi berria onartu zuen Udalak azken batzarrean, PNV eta EAren aldeko botoekin. Juan Fermin Mitxelena alkateak herritarren parte-hartzea ukatu duela salatu du Onin Udal taldeak, «ez direlako hauen ideiak eta proposamenak kontuan hartu». Oninen ustez, alkateak berriz ere «agintzea aukeratu du, karriken izendegia bertze udal taldeekin ez ezik, herritarrekin landu beharrean. Ez ditu kontuan hartu ezta dauden akatsak

edo proposatu diren ize-nak ere». Otsailaren 5eko plenoan izendegiaren gaia mahai gainean utzi ondotik, herritarren parte-hartzea bultzatu zuen Oninek eta zenbait proposamen bildu zituen. Ez PNVk, ezta EAK ere ez dutela proposamen horiek kontuan hartu adierazi du oposizioko taldeak. Honela, «Estrata kalea paratu da, bizilagun batek, hain ezagun diren Pepito Yanci edo Santiago Irigoien musikari- en izenak paratzea proposatu bazuen ere». Alde horretatik, Juan Fermin Mitxelena alkateak aipatu duenez, «toponimoen alde egin dugu, eta ez pertsonen izenen alde, horietako batzuk denbora gutti dutelako hilik eta ez genuen horretan sartu nahi».



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikastaroan parte hartu zuten emakumeak diplomak jaso ondotik, udal, Zahar Etxe eta bertze erakundetako ordezkariekin, martxoaren 5ean.

FORMAKUNTZA → BAZTAN-BIDASOALDEAN

Dependentzia dutenei arreta emateko ikastaroa egin dute 15 emakumeek

A. A.

Baztan-Bidasoaldean dependentzia duten pertsoneri arreta eskaintzeko zerbitzuetan lan egin nahi duten 15 emakumeri formakuntza eman zaie II. Enplegu Tailerraren itxiera ekitaldia egin zen martxoaren 5ean. Cederna-Garalur erakundeak kudeatzen du tailerra, zenbait erakunde eta Doneztebe, Bera, Lesaka eta Baztango udalen laguntzarekin. Bera, Lesaka, Etxalar,

Arantza, Doneztebe, Legasa, Narbarte, Zubieta, Elizondo eta Azpilkueta-ko emakumeek hartu dute parte, jatorriz, Brasil, Portugal, Nigeria, Txile, Errumania eta Perukoak dira horietako batzuk eta alde horretatik, Jose Luis Ruiz Ciruelos Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendariak aipatu zuenez, «formakuntza kualifikatua eskaini dugu, lan merkatura sarbide zaila duten bi talderi, emakumeei eta inimi-

granteei». 2009ko irailetik hasi eta 2010eko martxora bitarte 900 orduko formakuntza egin dute, aunitz, Elizondoko Benito Menni eta Francisco Joaquin Iriarte, Lesakako eta Berako Zahar Etxetan egindako praktika orduak.

Juan Fermin Mitxelena alkateak emakumeak zoriondu zituen eta lehen bi urteak Lesakan eman ondotik, tailerrak Donezteben segida izanen duela adierazi zuen.



ARGAZKIA: J.J. GUERRERO

Beti Gazteko sokatira taldeari ongi etorria

Munduko Sokatira Txapelketan lehen parte-hartzea zuten Beti Gazteko emakumeek eta bi kategoriatan laugarren postua eskuratu ta bueltatu ziren Italiatik. Dominak hain hurbil ikusita pena pixka bat zuten, baina egindako lan bikaina sarituz, plazan ongi-etorria jaso zuten otsailaren 28an.

LANA → EZ DA DESPIDORIK IZANEN

Idatzia adostu dute Zalaingo langileek eta zuzendaritzak

A.A.

Egunotarako iragarritako mobilizazioak bertan behera utzi zituzten Condesa taldeko Zalaingo langileek, zuzendaritzaren idatzizko konpromisoa lortu ondotik. Horren arabera, ez da kaleratzerik izanen eta gerta daitezkeen langileen irteerak, aurrejubilazioen bitartez moldatuko dira. Indarrean dagoen EREaren bidezko banaketa izanen dela eta jarraipen batzordea sortuko dela ere biltzen da agirian.

ALVARO LOPEZ
Eskaiola, pladur lanak,
sabal modularra, tabikeak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593

BOZZ-AID
LAVANDEKIA
948 637 127 • LESAKA

IRU BIDE
Energia - Auzoak
Barrioak, 31 • Lesaka
Tel. 948 637 127

XATURETXEA
ZALAI
JATETXEA
T. 948 637 260 • LESAKA

UDALA → DIRULAGUNTZAK

Mendi bideak moldatu eta eskoilerak eginen dira E-planaren barnean

89.000 euroko laguntzarekin bortz eskoilera eginen dira

metro zementu botatzeko intentzioa du Udalak. Lanak urte honetan eginen dira.

ETBren aldeko sinadura bilketa

Gure inguruan ETB ikustearen aldeko sinadura bilketaren epea maiatzaren 15a arte luzatu dute. Honen alde sinatu nahi duenak oraindik badu aukera udaletxera joan eta ize-na emateko. NANA eramatearekin nahikoa da.

Altxatako batzar orokorra

Altxata Kultur Elkar-teak urteko batzar orokorra eginen du martxoaren 27an 17:30ean Kultur Etxean. Urteko kontuak eta junta berrieza izanen dira gai nagusiak.

Joseba eta Nerea

Espainiako Gobernuak Etxalari emanen dizkion 89.000 euroak bideak moldatzeko erabiliko ditu Udalak, gehienbat eskoilerak egiteko. Horrela adierazi digu Patxiku Irisarri alkateak. Denera bortz eginen dituzte; bat Larrapil auzoan, lehengo eskonbreraren ondoan eta bertze lauak, Urritzokietan auzoan, bi Arretxekeo borda inguruan, bertzea Olaindiko borda parean eta azkena Garatxekeo bordako maldan. Eskoilerak eginda gelditzen den diruarekin Exkutun bordako bidean 260



ARGAZKIA: IZASKUN URBIETA

Zuhaitzaren Eguna

Joan den otsailaren 26an, urtero bezala, Landagain eskolako ikasle eta irakasleek Zuhaitzaren Eguna ospatu zuten eguraldi ederra lagun zutela. Denetara 70 bat lagun bildu ziren Joxe Angelen laguntzaz Iharmendi mendian gaztainak, haritzak eta lizarrak landatzeko. Lana akabatu ondotik denak elkarrekin bazkaldu zuten.



ARGAZKIA: EDURNE ELIZAGOIEN

Joseba Olagarai eta Nerea Mitxelorenaren agurra

Etxalartar guztioi: Ez gara orain arte inoiz zuengana zuzendu, baina oraingoan le-
rro hauek gure irakurle izan zareten guztioi eskerrak emateko probextea pentsatu dugu. Herrian gertatzen den guztia zuen etxeetara eramaten aritu gara azkeneko hamar urteotan eta hauxe da idatzi dugun azkeneko kronika. Ibilbide luze honetan kontu batzuekin asmatuko genuen eta bertze batzuekin ez. Ahalegina eta intentzioa onenak izan dira beti. Kontuan hartu ongi egindakoak, eta atzendu gaizki eginak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu hainbatetan zuengana jo baitugu informazio eske. Bertze batzuetan zuek izan zarete guregana hurbildu zaretenak. Eskerrik asko denei. Argazkian ikusten duzuen bezala, errelebo gaztea utziko dugu. Hemendik aitzinera Irune eta Ixaso Elizagoien ahizpek firmatuko dituzte Etxalarko kronikak. Zortetik onena opa diegu berriemaile berriei eta esker aunitz urte hauetan guztietan lagundu diguzuen guztioi.

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altxateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

ZUBIONDO
Jatetxea

Ungardotegia jatetxea

Alasta karrika
Tel. 948 630 054
BERA NAFARROA

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA

Tel. 948 627 014
Behin Plaza, 10 • LESAKA

ARANTZA

EUSKARA → TELEFONO GIDA

Euskara Batzordeak egindako telefono gida guztien eskura dago

Liburuxka polita eta erabilgarria banatu da

Nerea ALTZURI

Auzo eta herri kaxkoko etxeen berezko ize-nak jarriz, ondoan nola erraten ditugun paratuz, eta helbideak modu egokian nola idazten diren erakutsiz, lan txukuna egin du Euskara Batzordeak. Telefono zerrenda jakinaraztea izan da helburua, baina informazio aunitz barneratu dugu herritarrok, seguraski ez genekiena hau irakurri aitzinetik. Hagitz lagungarria izanen da lantxo hau, eta bide batez, eskerrik asko eta zorionak Euskara Batzordeari honako hau egiteagatik.

Udal informazioa

Martxoko udal informazioa hartu dugu etxe guztietan eta telefono gidaz gain, bertze gai hau-ek ere zehazten dira.

ALKATEAREN ESKUORDETZA

Iazko urritik urtarrila-ren 31 bitarte Ainara Maia alkatearen lan aferak tarte-ko, Jaime Iturria egon da alkate lanetan, eskuor-ordetza egitea erabaki baitzen. Gaur egun, le-hengoa moduan segitzen dute udaletxean.

DIRULAGUNTZAK

Aurtengo estatuko di-
rulaguntza aprobetxatze aldera, diru kopuruak ematen duen heinean, Goienburuko buelta hor-
migonatzea erabaki da. Arantzari dagokion la-
guntza 69.188 eurokoa da. Dena egitea zaila ba-
da ere, herriko arkitek-
toak egitasmoa presta-
tu du eta eskaera egina da dagoeneko.

Bertzalde, Nafarroa-
ko Gobernutik 30.000 euro inguruko dirulagun-
tza lortu da (%100), Una-
nu mendian duela hamar bat urte egindako planta-
zioan zeuden hutsune-
ak betetzeko.



ARGAZKIA: EVA MARTIN

Informatika ikastaroa

Hurbildu IKTetar@ programaren barne, hilaren 1etik 12ra egindako informatika ikastaroan parte hartu dute argazkiko hamar lagunek. Eva Martin elgorriagarra izan dute irakasle.

DATUA

69.188

EURO
hartuko ditu Udalak
Espainiako Gobernutik.
Goienburuko buelta hormi-
gonatzeko erabiliko da.

GOIKO KARRIKAKO LANAK

Jakina da Goiko karri-
kan obrak egin direla. Berritze lanak ongi geldi-
tu dira, baina herritarren-
gan sortutako eragozpe-
nak direla-eta, barkame-
na eskatu du Udalak. Zo-
laberritzearekin batera,
argiteria sartu da eta en-
presak izan dituen hain-
bat arrazoirengatik gehi-
xeago irauin dute lanek.

OSPAKIZUNAK

Martxoaren 27an Mozorro Besta

Aitzineko alean aipatu bezala, besta eguna izanen dugu martxoaren 27a, Mozorro Besta eginen baita egun horretan. Mozorro Xuriek antolatuta, meza ondotik, herri-kirol saioa eta bertso-afaria izanen dira, bertzeak bertze. Ez atzendu hitzorduaz!

Herri guztian zentzuz aparkatzeko eskaera ere egin du Udalak. Segurta-
suna mantendu eta etxe eta ostatuak babesteko paratutako piboteek au-
toak gurutzatzeko lekua guttitzen dute, eta be-
raz, ez aparkatzeko sei-
nalea dagoen tokian ez autorik uzteko eskatu du.

EUSKARA MANKOMUNITATEA

Lau bilera eta gero, otsail

hasieran Bortzirietako Euskara Mankomunitateak onartutako aurrekontuen inguruan ere, aipamena egiten da informazio txostenean. Lesakako Udaleko eta Bera-
ko Aralarko ordezkari-
en proposamena iazko ko-
purutik %35 murriztea izan da. Horren harira, «badirudi krisiaren aitzia-
kian euskara dela zigor-
tu nahi dutena», dio udal informazioak.

TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA
AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI
kanponketa eta mantentzea
Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ATERPE
ALBERGEEA · JATETXEA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zelaiñ • BERA • 948 630 002

OSPAKIZUNAK → HAUR, GAZTE ETA HELDUENTZAT

Ortziral goizean emanen zaio hasiera Asteburu Kulturalari

Igandea bitarte denetariko ekitaldiak izanen dira

Jaione OTXANDORENA

Ekitaldiz betetako asteburua izanen dugu honakoa, ortziraletik igandera. Antzakaitez Kultur Taldea, Guraso Elkartea eta Antrotokiko gazteak ibili dira antolaketa lanetan eta hiru egunez, haur, gazte nahiz helduek gozatzeko aukera paregabea izanen dugu!

Ortzirala, hilak 19

• 11:30ean herriko haur eta gaztetxoan dantza saioa frontoian.
• Ondotik aurreko alean aipatutako gazteen apustua.
• 16:00tik 20:00etara haurrentzako jokoak Leurtza aisialdi taldearen eskutik. Tartean berrendua.

Larunbata, hilak 20

• 11:30ean ajoarriero txapelketa.
• Ondotik bazkaria Ulibeltzak Elkartearen.
• Bazkalondoren, bi-zi-poteoa.
• 21:00etan afaria goizean prestatutako ajoarrieroarekin.
• 23:00etan kontzertuak eta ondotik gaupasa Laiotz taldearekin.

Igandea, hilak 21

• 10:30etik 14:30era, III. artisauferia eta herrikoen gazta lehiaketa.
• Bukatzeko, azokan parte hartu dutenek bazkaria egingen dute Ulibeltzak Elkartearen.

Etxauriko Harria Txapelketan Bertiz

Harri baldar ezagunarekin, Alberto Lakostaren oroimenez egiten den harri-altxatze txapelketa jokatu da martxoaren 28an Etxaurin, eta han izanen da



UTZITAKO ARGAZKIA

Haitiko lurrikaran kaltetutakoen aldeko pilota partidak

Otsailaren 26an, arratseko ordu haietan kalean hotz handia bazegoen ere, frontoi barruan giro ezinhobea nagusitu zen, Haitiko lurrikaran kaltetutakoen alde egindako pilota jaialdian. Lehen partida gazteek jokatu zuten: Iker Espelosin eta David Albiasu, Andoni Espelosin eta Enaitz Ansoren aurka, eta lehen bikoteak 18-14 irabazi zuen. Partida polita eta lehiatua izan zen, eta laurek hagitz maila ona erakutsi zuten. Bigarren partidak, berriz, ikusmin handia sortu zuen. Capellan eta Goñi II.a -atzelari- Lasa III.a eta Kokaren aurka aritu ziren. Goñi eta Capellanekek bikote izugarria egiten dutela erakutsi zuten. Lehenaren ezkerkada bikainak eta bertzearen esku nahiz hanketako abileziak txalo ugari sorrarazi zituen harmailetan. Baina parean zuten bikoteak ez zieten edonola irabazten utzi. Aipatzekoa da, markagailuan 21-20 zela, partida 25 tantora luzatzea erabaki zutela. Azkenean, 25-22 Goñi eta Capellanen alde. Baina kasu honetan ez zen emaitza garrantzitsuenak, kaltetuen alde dirua biltzea baizik. 3.334 euro bildu ziren eta Garfe enpresak 2.500 euro hartu zituen, lehendik adostu bezala, eta gainerakoa, 834 euro, Gurutze Gorriaren bidez Haitira bidaliko dira. Antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkiete partidak ikustera hurbildu ziren guztiei, eta batez ere, Doneztebeko Menditxuri enpresari, emandako dirulaguntza haundiagatik.

Unai Bertiz herritarra ere. VII. edizioa izanen da eta 136,5 kiloko harria altxatzeko bortz minutuko txanda izanen du. 12:30ean hasiko da lehia eta Aimar Irigoien eta Joseba Ostolaza izanen ditu kontrario.

Kanpina zabalik

Ortziral honetan, hilak 19, Aritzigain kanpalekuak berriz zabalduko dituzte atek. Kanpalekuko jendearentzako ez ezik, guztientzat egonen da irekia, ostatu-jatetxe zerbitzua ere eskainiko baitu.

Taxi berria

Udalak ateratako taxi plaza berria Ainhoa Etxebeste herritarrek hartu du. Martxoaren 8az geroztik martxan dago zerbitzua eta hau da bere telefonoa: 633 466486.

Martiko
Pol Zahar, s/n.
31790 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Hasteburu edozein eta ostual

DENDA
OSTALDIA
ASTELAREN ETXURIKO
ORTZIRALERA

8:30etik
12:30era

14:30etik
17:00etara

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

BELARRA JATETXEA

Auzola - DONEZTEBE
948 450 336
www.belarrarrestorant.com

DONEZTEBE

GIZARTEA → OSASUN ZENTRO BERRIA

1.900 metro koadroko osasun zentroaren aurreproiektua egin du Gobernuak

Udala eta osasun zentrokoekin bildu da

TTIPI-TTAPA

Osasun Zentro berria egiteko lanek aitzinera segitzen dute. Nafarroako Gobernuak ari da horretan eta Udalariek eta osasun zentroko arduradunek ere erakutsi die proiektua. Miguel San Miguel alkateak adierazi digunez, «600 metro koadroko oraingo osasun zentrotik 1.900 metro koadroko bat izatera pasako gara». Neurriarekin «sorpresa» hartu dutela aitortu digu, «1.400 metro koadro ingurukoa izanen zela errana baitziguten». Gainerakoan, diseinu alde-

tik «hagitz polita» iruditu zaio San Migueli. Hobe zeko aldean artean, aparkaleku gehiago egiteko eskatu du Udalak.

Udalak eta osasun zentroko arduradunek errandakoa aintzat hartuta, osatu egingen du aurreproiektua Gobernuak, eta Udalak lauzpabortz hilabete barru proiektua eginga izatea espero du. 2011ko aurrekontuetan osasun zentroa sartzea nahi luke.

Entrenatzaileen ikastaroak

Maiatz hasieran ekingo zaio entrenatzaileak izateko egingen diren ikastaroei. Horrela iragarri du Erreka Kirol Elkartearen webguneak. Bi ikastaro emanen dira, bat oinarriko mailakoa eta ber-



ARGAZKIA: NOELIA ARIZTIA

Errekako judokak Parisen

Errekako judokak gogor segitzen dute entrenatzen. Noelia Ariztia, erraterako, Parisen izan da berriki judoko goi mailako stage batean, eta Madrilen barna ere ibili da entrenatzen Nafarroako Federazioaren bidez, 23 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin parte hartzeko. Argazkia joan den abuztuan Iruñean egindako bertze kontzentrazio batean ateratakoa da. Herritar bakarra Noelia da, baina Errekan ari direnak bertze hiru badira: Ariane Casal, Nieva Larraya eta Sandra Avero.

tzea lehen mailakoa.

Lehenbizikoan, bertzeak bertze, elikadura, lesioak, kirol medikuntza edo prestakuntza fisiko landuko dira. Ikastaro honen zati bat, klaseetara joan gabe, etxetik egiten ahal izanen da, ordenagailu bidez. Baina horrez gain, hiru ordu inguru iraunen duten klaseetara joan beharko da.

Lehen mailako ikastaroa gero egingen da, eta

kasu honetan eskubaloia izanen da landuko den gai bakarra. Alberto Martinek eskainiko du eta bortz eguneko izanen da, lau ordukoa bakoitza.

Erreka elkarteko kontuak

Erreka Kirol Elkarteak Nafarroako Kutxako *Zuk aukeratu, zuckerabaki* egitasmoaren ba-

rrenean bi proiektu aurkeztu ditu aurten.

Horietako bat orokorra da, elkarteak urte guztian antolatzen dituen ekitaldi eta atalei laguntzeko. Eta bigarrena dantza talderena da. Erreka elkartearen barne dago dantza taldea ere joan den urteaz geroztik, eta adierazi digutenez, «etorkizunerako ideia eta proiektu hagitz interesgarriak dituzte».



Errotaidea z/g
Elgorriaga (Nafarroa)
Tel. 948 45 60 45
www.balnearioelgorriaga.com



Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?
Denbora aunitz daramazu etorri gabe?
HAU DA ZURE AUKERA
Igerileku termalean erlaxazio zirkuitua **bakarrik 10€ pertsonako**
%50 BAINO GEHIAGOKO DESKONTUA
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan). Baldintzak kontsultatu

EUROVELO → TXIRRINDULARIENTZAKO BIDEA

2012rako eginen egonen da Endarlatsa eta Doneztebe arteko txirrindularietzako bidea

Bertz eskualderako plan eragilea sinatu dute Gobernuak eta Partzuergoak

TTIPI-TTAPA

Endarlatsa eta Doneztebe artean txirrindulariendako bidea egokitzten aurtan hasiko dira eta 2012rako akitua egotea espero da. Honelaxe jakinarazi zuen martxoaren 2an Bertziko Partzuergoko Izaskun Goñik, Nafarroako Gobernuak eta Partzuergoak esku-

alderako plan eragilea sinatu zutenean. Hain zuzen, horixe izanen da inguruan turismoa bultzatzeko eginen diren ekimenen artean lehenbizikoa, Endarlatsa eta Doneztebe arteko bidea egokitzea, Euroveloren baitan, Baiona eta Iruña lotuko dituen bidearen barne.

Mugaz gairako proiektu honen bultzatzaileak Bertziko Partzuergo eta Bidasoa Activa dira Hegoaldean eta Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorra Iparraldean.

Endarlatsa-Donztebe zatiak 873.003 euro-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ezkerretik hasita, Carlos Erce Turismo zuzendaria, Juan Ramon Corpas Turismo eta Kultura kontseilaria eta Martin Garde eta Izaskun Goñi, Bertziko Partzuergo Turistikoko presidentea eta kudeatzailea, eskualderako turismo plan eragilea sinatu zuten egunean.

ko aurrekontua izanen du: 796.664 euro inbertsio gastuetarako eta 76.338 bertze ekimenterako. Inbertsio gastuetatik %65, 517.832 euro, FEDERen funtsatik ordainduko da eta %35, 278.832 euro, Nafarroako Gobernuak. Seinaleak, promozioa, webgunea edo komunikazio arloak hartzen dituzten bertze ekimentera bideratuko diren

76.336 euroetatik %35 Bertziko Partzuergoak ordainduko ditu eta %65 FEDERen funtsatik.

Ekitaldian, bertzalde, Martin Garde Partzuergoko presidentea etorkizuneko asmoa Doneztebetik Elizondora bidea egokitzea izanen litzatekeela adierazi zuen. Carlos Erce Turismo zuzendariak, berriz, Euroveloren trazatuak Donezte-

betik Saldias aldera jutzen duela argitu zuen, eta hortik Irurtzunera, Plazaola bidearekin bat egiteko, Iruña bitarte.

Juan Ramon Corpas Turismo eta Kultura kontseilariak, bere aldetik, eskualdeak turismo eskaintza zabala duela eta, alde horretatik lana egin behar dela azpimarratu zuen, ingurua turismoaren jomuga izan dadin Nafarroaren barrenean.

UDALEKUAK → ARANTZAN ETA BEINTZA-LABAIENEN

Gobernuaren laguntzarik gabe baina euskarazko udalekuak egin nahi dituzte Beintza-Labaien eta Arantzako aterpeek

Prezioa ez igotzeko esfortzua egin dute aterpeek

TTIPI-TTAPA

Azken hamar urteotan egin diren *Euskarazko Udalekuak* kanpainari segida eman nahi diete Arantzako Aterpea eta Beintza-Labaiengo Orbelaterpeak. Nafarroako Gobernuak ez du aur-

ten udaleku hauetarako dirulaguntzarik aurreikusi, eta hortaz, bi aterpeek ahalegin berezia egin dute prezioa ahal den guttien igotzeko. Ekimena martxoaren 5ean aurkeztu zuten antolakuntza bidelagun izan duten Bertziko Turismo Partzuergoak eta bi aterpeotako arduradunek.

Neska-mutiko aunitz mugitzen dituen ekimena da udalekuena. Horren seinale, joan den ur-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertziko Turismo Partzuergoko ordezkariak eta Arantza eta Beintza Labaiengo aterpeetako arduradunak *Euskarazko Udalekuak* ekimena aurkezterakoan.

tean Nafarroa osoko ia mila ikaslek parte hartu zuten. Orduan, Administrazioaren laguntzarekin, prezioa 120 eurokoa izan zen. Aurtan, berriz, sudentziorik ez dagoenez, 180 eurotan finkatu dute prezioa. A eta D eredu-ko Lehen Hezkuntzako 8 eta 12 urte arteko eta DBHko 13 eta 16 urte ar-

tekoei bideratua dago kanpaina eta sei eguneko (5 gau) egonaldiak egiteko izanen litzateke. Ekainaren 21etik abuztuaren 28ra iraunen luke eta 900 lagunentzako plaza daude.

Gobernuaren dirulaguntza zuzenik egon ez arren, proiektuaren arduradunak Hezkuntza Sai-

larekin harremanetan daude, «10 urtez iraun eta Nafarroako gizartearen sustaritu den proiektu honek zeharkako dirulaguntza izan dezan».

Informazio gehiago: www.consorciobertz.org web orrian, 948 59 23 23 telefonoan edo udalekuak@consorciobertz.org en.

LEGASA

ARGAZKIEN ERAKUSKETA → 100 LAGUN HURBILDU DIRA

Argazki zaharren lehiaketa arrakastatsua izan da

156 argazki izan dira ikusgai erakusketan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 6 eta 7an eginiko argazki zaharren erakusketak izugarriko interesa piztu zuen. Parte-hartzea handia izan zen; 100 lagun inguru bertaratu ziren eskolako gimnasia. Jendearen aurpegitan sentimendu askoren nahasketa antzeman zen: ilusioa, melankolia, sorpresa, emozioa, hunkidura... Erran, 156 argazki aurkeztu zirela erakusketara. Gehienak 70. hamarkada-koak ziren, baina baziren zaharragoak ere.

Argazki sariduna Elialdeko familiak aurkeztu zuen; 80 urte inguru dituen argazkiak elizak sarreran zuen arkupe/zutabe arkuduna erakusten du. Sorpresa handia eragin zuen argazki honek, gehienek ez baitzuten ikusi, ez aditu ere horrelako sarrera zuenik.

Bigarren eta hirugarren sariak Zarrantzeko



UTZITAKO ARGAZKIA

Argazki lehiaketako saridunak.

familiak lortu zituen. Bigarren sariako argazkian herrian jaiotako apeza zen Valentin Oteizaren lehen-dabiziko meza eta herriko monagiloak ageri dira, Joxe Zarrantz eta Martin Subizarren janzkera erakusten du -70 urte inguru izanen ditu argazkiak-. Eta hirugarren sarituan, 1970 urte ingurukoan, Legasako mutilak goitiko karrikan dantzan ikus daitezke.

Azkenik, bozketan parte hartu zutenen artean, bertze zozketa egin

zen eta Morrongeneko Fermin Zelaia aterazen saritua.

Lerro hauen bidez antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkiete herritar guztiei, parte-hartze, kolaborazio eta eskuzabaltasunagatik.

Gazteak sagardotegira

Martxoaren 27an, gazteek Hernaniko sagardotegi batera irteera antolatu dute. Eguerdian bazkaltzera joanen dira eta nahi duena apun-

tatzen ahal da. Autobusa bete arte tokia bada-go. Animatu!

Andreen afaria

Emakume langilearen eguna ospatzeko, herriko emakumeek afari goxoa egin zuten martxoaren 6an. Arotza jate-txean egin zen eta 20 inguru elkartu ziren.

Auzolanak

lazgo auzolanen bat egiteko falta diren errekuperatzeko azken hila-betea hau izanen dute.

GIZARTEA

Adinekoentzako bainuetxe programan izena emateko epea zabalik

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak erretiratu eta pentsiodunentzako antolatzen duen bainuetxe programan izena emateko epea zabalik dago. Maiatzetik abendura iraunen du programa honek eta sei eta hamabi eguneko egonaldiak egiteko aukera izanen da Elgorriaga eta Fiteroko bainuetxeetan -azken honetan sei eguneko egonaldiak bakarrik-. 411,76 euro balio du egonaldi luzeak, eta 205,88 euro laburrak. Dena den, urtean 7.697,20 euro kobratzen dutenentzat prezio bereziak izanen dira, kasu hauetarako aurreikusitako kopurua gainditu artean. Eskerak, bertzeak bertze, osasun zentroetan eta gizarte zerbitzuetan aurkez daitezke apirilaren 6ra arte. Informazio gehiago: 902 165170 eta www.navarra.es-en.

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera-Tel: 948 630 735 - 407 406 781

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak

© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

KIROLA → APUSTUA LASTERKA

Marka haundia egin du Tomaseneko Igorrek Loitzateko atakara lasterka

Zubitik abiatuta 51 minutu eta 39 segundo behar izan ditu

Fermin ETXEKOLONEA

Sasoiko daude gazteak, eta apustu gosez gainerakoak. Ikusi bestela, martxoaren 7ko apustuak izandako erantzuna. Ikusmin haundia eragin zuen egun horretan Loitzateko atakara lasterka joateko herriko lau gaztek egindako apustuak. Palazioko Mikel eta Errandoneko Ibai, Tomaseneko Igor eta Ikazpeko Patxiaren kontra egin zuten apustua, eta guztiak ere fisikoki sasoiaren daudela erakutsi arren Tomasenekoa nabarmendu zen: 51 minutu eta 39 segundo behar izan zituen zubitik Loitzateko atakara joateko. Bigarren Mikel helmugaratu zen, 55 minutu eta 40 segundoko denbora egin ondotik; Patxi izan zen hirugarrena -56 minutu eta 50 segundo- eta Ibai laugarrena - ordu bat eta 5 minutu-.

Desafioa bikotekazenez, denborak batuta ere Igor eta Patxi, zaharrena, izan ziren nagusi. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta jende asko bildu zen apustua ikustera, herritik zein kanpotik.



ARGAZKIA: IDOIA INDAKOTXEA

Eguneko lau protagonistak. Ezkerretik hasita, Ibai, Mikel, Igor eta Patxi.

Lagunarteko afaria zuten antza jokoan, baina hortaz aparte, saltsa polita sortu zuten, tartean apustuak Herriko Ostatuan. Gustura utzi dituzte herritarrak, eta lerro hauen bidez, zorionak Igorri, eta eskerrik asko denei.

Emakumeen afaria

42 emakume elkartu ziren martxoaren 6an Herriko Ostatuan. Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatuta zuten, eta oso giro onean ibili ziren. Hasiara batean, Joxe Mari arduratzekoa zen musikaz, baina azkenean, Oihana Elizalde aurtiztarra, Ainhoa Larrea zubietarra eta Garbiñe Olazar iturendarra aritu

ziren eta musika doinuekin goizaldera arte luzatu zen besta.

Jabier Mutuberria saritua

Tolateko semea den Jabier Mutuberria, Gipuzkoako Urteko Enpresari izendatu du berriki Gipuzkoako Bazkunderak. Hernaniko (Gipuzkoa) Orona igogailuen enpresako zuzendari nagusia da Mutuberria, eta sari-keta honek «Gipuzkoan aberastasuna eta lanpostuak sortzen dituzten enpresarien lana onesten du». 24 urte daromatza Mutuberriak Oronan lanean eta 1999tik zuzendari nagusia da. Hamar urtetan 1.200 langile izatetik 4.000 izatera pasatu da. Zorionak!

Herritarrak kantuan

Haur Kantari Jaialdian kanporaketa jokatu zen martxoaren 6an Elizondoko Lur dantzalekuan, eta Doneztebeko Agorreta Musika Eskolako taldean herritar batak parte hartu zuen: Xapako Mikelek. Oso esperientzia polita izan da, eta ea hurrengoan ere errepikatzen duen.

Sorpresa larunbatean Lurren

Larunbat honetan, martxoak 20, Ken Zazpi talde ezagunak kontzertua eskainiko du Elizondoko Lur aretoan. Baina horez gain, baliteke zubitarrak ere sorpresaren bat eskaintzea. Iku-siko da...

ERATSUN

Hainbat obra eginen ditu Udalak hurrengo hilabeteetan

TTIPI-TTAPA

Egoera okerrean dauden herriko karraketan zola kendu eta berria paratuko du Udalak. Pedro Deskarga alkateak TTIPI-TTAPAri adierazi dionez, «proiektua egin dago eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin egiten dira lanak». 150.000 euroko aurrekontua duten obrak dira, eta Gobernuak %70 subentzionatuko du. Deskargak azaldu digunez, karrika guztiak berrituko lituzkete gustura, baina dirulaguntzak erdia berritzeko adina ematen du, eta behar handiena dutenak moldatuko dira. Apiriletik aurrera aterako du Udalak obra lehiaketara, Deskargak iragarri duenez.

PENTA ETA LAUNTZEKO BIDEAN PORLANA

Espainiako Gobernuaren dirulaguntzarekin 17.838 euro egokitu zaizkio Udalarri eta diru horrekin Penta eta Launtzera doan bidea zolaberritu eta porlana botako da.

Joan den urtean ere eman zuen subentzioa estatuko Gobernuak, 29.734 euro zehazki, eta orduko hartan, Goikoetxe teilatua konpontzeko erabili zen.

**Lizun**
GAZTANDEGIA
Etxe Ardi Garta
Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 882

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

SALDIAS

INAUTERIAK → MARTXOAREN 6AN ETA 7AN

Aurtengo inoteak mozorro samarrak

Denek haserre akitu dute

Markel LIZASOAIN

Aurten, justu-justuan egin dira inoteak; beharrik bizpahiru gazte mugitu diren! Haurrek eginak zituzten berenak, baina urteroko puska biltzea ia-ia egin gabe gelditu da. Gainera, denek haserre akitu dute: antolatzen aritu direnek, bakar-bakarrik aritu direlako; beste batzuek, gazte gutxi bildu direlako puska biltzera; beste batzuek, ordua paratu eta berandu hasi direlako; beste batzuek, garizuman egin direlako... Denek ere gauza bera esaten akitu dute, ez doa zela berriz ere inoteetan parte hartzera. Ez etsia hartu!

Nolanahi den, ortziralarekin hasi ziren inoteak. Hamabost bat gazte afaria egin zuten, eta, afalondoan, mus txapelketa. Kantari ere aritu ziren, eta goizeko laurak arte luzatu zen gaua. Larunbatarekin, puska

biltzera joan ziren base-rietara goizean; franko berandu joan ere, agertu ez zirenen esperoan egon zelako jendea; izan ere, musikariak ia-ia gehiago ziren gazteak baino, eta lotsa zen autobatean abiatzea Urrutiñara. Hondarrean, hiru-lau auto ibili ziren etxalde batetik bestera. Soinu txikia jotzen, berriz, Aurtizko bi neska gazte: Oihana eta Bidane. Horiek baino lehenago agertu eta enpeinu handia paratu zuten; ezusteko polita eman zuten.

Urtero bezala eta hutsik egin gabe, Otxantrengo bordan hasi ziren buelta egiten. Ondotik, Mantxengo bordara eta Intxurera; handik Lotzabiango Kantinara; atarian hiru laguneko zortziko egin, eta Loprenera salda jatera. Eta Lopreneretik herriera. Herriko buelta akitu, eta orduan isildu ziren aurtiztarrak. Tabernean zen afaria gero, eta horrerarekin berandu samar joan ziren gazteak, han baitziren denak



ARGAZKIAK: OTXANTRENGO MAITE

Haurrak aurtien bi aldiz mozorrotu dira.



ARGAZKIAK: MAIDER SERRANO

Maradona eta Kleopatra, dantzan, Loprengo bordan.

mahaian jarrita esperotan. Afalondoan, Joxe Angel aritu zen organo jotzen, eta, afariko ardoak lagunduta, dantzan eta kantuan joan zen gaua.

Aurten ere egin ditugu inoteak, eta egitea hutsa ez da gutxi Saldiasko herri ttikiarentzat.

Ortzegun Santua

Joan den urtean, garai

bateko ohitura bat berri-
tu zuten, eta aurtien ere eutsi nahi diote egun horri: Ortzegun Santuarekin, eskean ibiliko dira haurrak etxez etxe. Aginaldoa eskatuko dute kantu batekin. Garai batean, meztatik aterata egiten zuten, eta, zerbait eman arte (hurrak, intxaurrak, goxokiak...), behin eta berri-
z kantatzen zen hau:

«Agin-agonaldo, aqui estamos cuatro, cantaremos dos, una limosnita por amor de Dios. Andriak elizera, gizonak tabernera, apezak bere ofiziotera, bota-bota gaztakin ximalak!». Eta honako hau ere kantatzen omen zuten, doinu berarekin: «Gaur egun-eguna, bihar Pazkoa, etzi ezkontzen da gure atsoa».



Berean etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ☞ Langile autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-Kontrabutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ARESO

OBRAK → DIRULAGUNTZA

Espainiako Gobernuaren dirulaguntzarekin obrak eginen dira udaletxean

Bestalde, udal
agiriak
ordenagailuz
eskaini nahi dira

Juana Mari SAIZAR

Espainiako Gobernuak aurten Udalari emanen dion dirulaguntzarekin, udaletxearen lehenengo solairua konpondu nahi da. Gisa honetan, Hirurteko Planaren

barne dauden beste laguntzekin batera, osatuta geldituko litzateke barneko egitura, eta hainbat erabileratarako izango litzateke.

Bigarren proiektua izapidetza telematikoa-rena da, hau da, txostenen jarraipena eta ziurtagiriak ordenagailuz bakoitzak bere etxean hartu ahal izatea. Hartara, herritarrek ez lukete idazkaritzatik pasa beharko.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zuhaitzaren eguna

Guraso Elkareak antolatuta, Urteaga parajearen zuhaitzaren eguna ospatu zuten 30 guraso eta umek. Bigarren urtea da hau egiten dela, eta hurrengorako, eremu hori dena txukundu eta garbitzea proposatu zuten. Ume bakoitzak bere aitzurra eta jorraie eraman zuen eta Udalak gaztainondo eta haritzondoan landareak jarri zituen. Lana egin ondoren, eta lege zaharrean, mokadutxo bat hartu zuten, eta edariak Guraso Elkarteak banatu zituen han botatako izerdiari aurre egiteko asmotan. Honekin lotuta, esan, azken aldiko haizete bortitzak, Muiña parajearen, izei gorriak hankaz gora bota dituela. Badirudi badagoela pertsonaren bat interesatua hauek aprobetxatzeko. Baina Udala, Nafarroako Gobernuaren baimenaren esperoan dago zer egin erabakitzeko.

ARANO

BILERA → 'XYNTHIA' EKAITZA GAINEAN DELA

Eguraldiak lagundu ez arren, bazkide gehienak bildu ditu San Roke elkarteko batzarrak

Ekaitza dela-eta, ia ilunpean egin dira bilera eta afaria

Kontxi KLABER

Otsaileko azken larunbaterako deitua zegoen San Roke elkar-

teko bilera eta nahiz eta haizete izugarria ibili egun horretan, *Xynthia* ekaitza gainean gurela egin zen bilera. Ilunpean edo ia ilunpean, larrialdietako argia besterik gabe gelditu zen elkarteak.

Egoera zela eta, oso laburra izan zen eta be-



ARGAZKIA: KONTXI KLABER

Kandela batzuen argiarekin prestatu zuen afaria Joseba Manterolak, baina halere, oso gustura hartu zuten bazkideek.

rehala landu ziren pres-tatuak zeuden puntuak.

Eguraldiak eguraldi, ia bazkide gehienak inguratu ziren bilerara eta ondoren gehientsuenak geratu afaltzera. Kandlekin hasi zen afaria eta

gero argia etorri zen.

Legarreta finalean

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bigarren finalaurrekoan, Irurritako saioan, lortu zuen Xabier Legarretak larunbat

honetan, martxoak 20, Lesakako frontoian jokatuko den finalerako txartela.

Zortetik onena opa dizugu herritarrok Xabier, ea aurtengoan lortzen duzun.

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK AZTERGAI

Karnabalak gero eta hobeak izatea helburu

Gai asko atera ziren mahai gainera Mozorroek horretarako antolatutako bileran

Esteban AROTZENA

Klase honetako gauzak bero-bero egitea hobe dela pentsatuta, iñoteei buruzko orainaz eta geroaz hitz egin asmoz, martxoaren 6rako bilerara deitu zituen herritarrak Mozorroen Taldeak. Adin guztietako karnabalzaleek erantzun zioten aipatu deialdiari, baita eztabaida aberats eta sakon baten barrenean hamaika ideia eta pro-

posamen mahaigainerratu ere. Iñoteetako egun nagusiaz, astear-teaz, alegia, hitz egin zen gehienbat. Mozorroen protagonismoaz gain, egunean zehar herritarren parte-hartzea haundiagoa izatea nahi da, eguerdi partean batez ere. Ilunabarreko zagi-dantzaren eta karrozen irteeraren uztarketari buruz ere luze eta zabal hitz egin zen.

Zuriñek, Mozorroen Taldeko idazkariak, orriak eta orriak bete zituen jendeak esandakoarekin. Ondorengo asteetan komisiok eztabaidatuko omen du guztia, eta Pazko ondoren beste bilera baterako deialdia luzatuko dute Mozorroek.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Goizuetatik Segurara Euskal Herriko txapelaren bila

Euskal Herriko Mus Txapelketako Goizuetako kanporaketa irabazi zuten Juanjoxe eta Ixabelek orain dela aste batzuk. Horri esker, herrialdekoan parte hartu zuten martxoaren 6an Iruñean beste 127 bikoterekin batera. Han ez zuten irabaztea lortu, baina bai 32 onenen artean sailkatzea. Beraz, larunbat honetan, hilak 20, Seguran jokatu den final haundian izanen da Infantako bikotea. Bidaia haundi bat eta 3.000 euro egonen dira jokoan. Esan behar da, gure herriko beste ordezkariak, Aitorrek eta Juanek, ez zutela eskuratu Segurarako txartelik.



ARGAZKIA: PILI APEZETXEA

Emakumeak elkarrekin

50 emakume bildu ziren Umore Ona elkartean Emakumearen Eguneko ospakizunetan.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Hiru gaztetxo Malerrekako Pilota Txapelketan

Malerrekako Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten argazkian ageri diren herriko hiru mutikoez osatutako taldeak. Umeen mailan, Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxea aritu ziren, eta kimuetan Iker Salaberria, Oberena taldeko Jon Mariezkurrena lagun zuela. Azken hauek txapela lortu zuten, gainera.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak
LARRALDEA LINDDURRENBORDA
LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA
Dolarea Txotx denboraldia irekia Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA: Dolarea sagar - LEKARROT 948 402121 - 426 414311
LINDDURRENBORDA: Dolarea sagar - LESAKA 948 402121

BAZTAN

AURREKONTUAK → ALKATEEN AGERRALDIA

Baztan 15 herrik osatzen dutela oroitarazi diote 11 alkatek Udalari

Diru gehiena Elizondon inbertituko dela salatu dute

TTIPI-TTAPA

Udalak inbertsioak zehazterakoan egiten duen politikaren kontra daudela adierazi dute Amaiur, Azpillueta, Erratzu, Arizkun, Elizondo, Gartzain, Irurita, Arraioz, Oronoz, Aniz eta Berroetako alkateek. Horrela jakinarazi zuten hilaren 4an egindako agerraldian.

Udala 15 herriena dela oroitarazi zuten eta gisa berean, «aurrekontuak herrietako alkateen iritzia aditu gabe onartu» izana leporatu zioten Udalari: «horregarranti-ttsua den afera horretan herrietako alkateok laguntza ematen ahal dugu, gure herrietan diren beharrak adieraziz».

2.630.000 euroko aurrekontua onartu du aur-

ten Udalak, eta alkateen hitzetan, «gehien-gehiena Elizondon geldituko da. Zatiarik haundiena, 600.000 euro, Elizondoko Plazan inbertituko da, ia %23. Gainerako 14 herrietan, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik ez duten proiektuetan 200.000 euro inguru inbertituko dira». Baztanek ehunka kilometro pista dituela ere aipatu zuten alkateek: «horiek mantendu eta hobetzeak inbertsio haundia eskatzen du, baina horretarako 150.000 euro bakarrik aurreikusi ditu 2010erako eta den-dena Bagordiko bidean».

ESPAINIAKO LAGUNTZA INBERTITZERAKOAN ERE HUTSUNEAK

Espainiako Gobernuaren dirulaguntza deialdian, 862.912 euro egokitu zaizkio Baztani, baina diru hori ere Elizondon gastatuko dela kritikatu dute alkateek, «eta



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Herrietako alkateak prentsaurrekoa eskaini zuten martxoaren 4an. Ezkerretik hasita, Xotero Etxandi (Arraioz), Arantxa Zelaia (Berroeta), Bittor Elizagoien (Oronoz), Juan Kruz Iriarte (Arizkun), Pello Obregozo (Irurita), Asier Maritorea (Aniz), Juanjo Oskaritz (Erratzu), Julian Rekalde (Amaiur) eta Mikel Ortega (Elizondoko kargoduna).

makurrena dena, elizondarrekin batere kontatu gabe». Joan den urtean emandako 1.388.826 euroak ere «dena Elizondoko hiru proiektutan gastatu ziren: frontoia, Merkatu Plaza eta Jaime Urrutia karrika». Laguntza herri guztien artean banatu beharko litzatekeela azpimarratu zuten.

«Alkateok jasaten dugun tratua eta indiferentzia» ere salatu zuten, «gure esakera guztiak erantzunik gabe gelditzen dira, Udalak etengabe bizkarra ematen digu».

Bertzalde, UPNren jarraiera ere salatu zuten: «beti bezala, kritikatu bertzerik ez du egiten eta ez du alternatibak aurkezteko, ideiak emateko, hitz batean, lan egiteko gaitasunik».



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Martxoaren 26tik aitzinera Javier Zigaren lanak ikusgai

Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo Departamentuko ordezkariak Elizondon izan ziren martxoaren 2an, Bertizera egindako bisitaren ondotik, Jorge Oteiza Museoaren lehen eta bigarren solairuan, Javier Ziga margolariaren lanak hartzeko egokitu den eremua bisitatzeko. Eta han iragarri zuten martxoaren 26tik aitzinera zabalik egonen direla jendearentzat. Gobernuordezkariarekin batera, udal ordezkariak eta Museoarekin lotura duten hainbat lagun izan ziren.

Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Lanbete olio erabilien kudeaketa baimendua: GNP/23/NA/2004
Hondakin arretakuzpeko gaitasuneko kudeaketa baimendua: T/153/NA/2005

ECOGRAS

Erabilitako landare olioaren bilketa

Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es • Zaindu zeure ingurumena!

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 19TIK 21ERA

Asteburu kultural osatua antolatu dute Berroetan

Igandean Herri Kirol Jolasak jokatu dira

arku tiroketa, discgolf...
20:00etan, berriz, afa-
ria izanen da, eta 21:00-

etan mus txapelketa.
Igandean, azkenik,
Nafarroako Herri Kirol

Jolasen laugarren jar-
dunaldia jokatu da
11:00etatik aitzinera.

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz beteriko as-
teburua antolatu dute
Berroetan. Ortziralean
netan, martxoak 19, ha-
si eta igandera arte haur,
gazte nahiz helduek izan-
nen dute non gozatua.

Ortziralean, 16:00-
etan ipuin kontaketa izan-
en da eta 17:00etan
txokolatada. Arratsean,
21:00etatik aitzinera,
helduentzako kantu afa-
ria izanen da Pello Za-
baltza eta Joxe Angele-
kin eta Eriz magoak ere
bere saioa eskainiko du.

Larunbatean, Leur-
tza Abenturaren esku-
tik hainbat jolas izanen
dira 16:00etan hasita:
Segway, laser paintball,



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Kalte materialak eragin ditu haizeak

Haizeak gogotik jo zuen otsaileko azken aste hondarrean. Nafarroako Gobernuak Gorrამენდინ duen meteorologia-estazioan, erraterako, orduko 187,5 kilometroko haizeteak neurtu ziren. Eta horrek kalteak eragin zituen hainbat tokitan. Argazkian ageri den Tasubinsaren Elizondoko lantegian, Poskonean, haizeak teilatuaren zati bat eraman zuen. Baztan pilotalekuko teilatuak ere kalteak izan zituen. Arizkunen, Kattalinkoneko teilatuaren zati bat eraman zuen, baita Zigako granja batena ere. Bertze herrietan ere izan ziren kalteak. Hala, Lekarozen eta Arraiozen, orduak eta orduak pasatu zituzten argirik gabe.



Pertsonaia

Izaskun ALMANDOZ

Iñigo Arista
idazlan
lehiaketan
sartitua

Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean ari den Izaskun Almandoz Elizalde seigarren mailako ikasleak saria lortu du Iñigo Arista erakundeak antolatzen duen idazlan lehiaketan. Aurtengoa lehiaketaren XXIX.edizioa izan da eta 150 ikastetxetako 4.000 ikasle baino gehiagok parte hartu dute. Horien artean, 25 izan dira sarrituak eta tartean, Izaskun Almandoz.

edredoi fundak
albomozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdiak
Azkénekó aukerak

Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → KONTZERTUAK

Zakartu Rock besta eginen da martxoaren 27an Gartzainen

Baztango zortzi musika talde ariko dira

TTIPI-TTAPA

Baztango rock taldeen Zakartu Rock besta martxoaren 27an Gartzainen eginen da eta antolatzaileek egun osoko besta antolatu dute: 14:00etan bazkaria izanen da eta ondotik bertsolariak. 17:00etatik aitzinera taldeen emanaldiak hasiko dira. Baztango talde guztiak jotzerik izanen ez badute ere, hauek ariko dira: Errugabe, Kaskezur, Ufestuek, Mugalariak, Zoldak, Askatu uli beltzak, Komando Kas-taña eta Ratakalba.

Bazkarira joan nahi dutenentzat, txartelak Intza ostatuan daude salgai 20 eurotan (kontzertuetako sarrera barne). Bertzalde, 21:00etatik 23:00etara boka-tak izanen dira.

Aroztegiko proiektua gelditzeko eskaera

Aroztegiko egitasmoa gelditu eta Baztanen herri-eztabaida abiatzeko eskatu du Aroztegia... eta gero zer plataformak. Aroztegiako proiektua,

«oroz gaineratik, egitasmo urbanistiko bat» dela salatu zuen taldeak hilaren 11n egindako agerraldian: «hutsetik 252 etxebizitzako bizigune berria sortuko duena Baztanen, 750 biztanle inguruko bizigunea. Hala, golf belagia eta hotela, jokaldi urbanistikoa zuzitzeko aitzakiak bertzerik ez dira, eta horretarako, aski da bertze tokietan egiten ari diren gisako egitasmoetara begiratzea: Arabako Bastidakora adibidez».

Taldearen irudiko, egitasmoak Baztango egituraketan eta lurraldearen antolaketa «ondorio nabariak» izanen ditu: «praktikan, Baztango 16. herri bihurtuko litzateke eta, horrek ondorio sozial, espazial eta ekonomiko sakonak ekarriko ditu». Horregatik pentsatzen dute azken erabakia baztandar guztiei dagokiela. Aitzitik, Udalaren jokaera «guztiz kontrakoa» izan dela kritikatu dute: «herriarrei deus galdegingabe, egitasmoa gauzatzeko Udal Planaren aldaketa puntualari hasierako onespena eman zion».

ATXIKIMENDUAK

Hainbat dira Aroztegia... eta gero zer? plata-



ARGAZKIA: NASA PRODUCCIONES ETA LAZO VISUAL

'Baztan' filma grabatzen

Martxoaren 1az geroztik, *Baztan* filmea grabatzen ari dira gure bazterretan. Iñaki Elizalde zuzentzen du filmea, berak eta Michel Gaztanbidek sortutako gidoian oinarrituta eta agoteen gaia da istorioaren ildo nagusia. Nasa Producciones eta Lazo Visualen esku daude produkzio lanak, eta tartean da Mikel Pruaño ere. Aipatzekoa da filmearen sekuentzia guztiak Baztanen errodatzekoak direla, eta aste honetan akitzea espero dute. Aktore aski famatuak ari dira parte hartzen: Unax Ugalde, Carmelo Gomez, Kandido Uranga, Txema Blasco, Joseba Apaolaza eta Ramon Agirre, bertzeak bertze. Ezagun hauekin batera, badira baztandar batzuk ere. Tartean, argazkian, Iñaki Elizalde zuzendariarekin ageri den Patxi Bengoetxea (*An-txo*) eta Carmelo Gomez eta Unax Ugalde aktoreen ondoan dagoen Mirentxu Goienetxe (pelikulan Unax Ugalderen arreba). Horiez gain, Juainas Paul eta lone Lizartza ere eskualdekoak dira. Behin irudiak grabatuta, ekainetik irailera muntaia egin nahi dute eta 2011 urte hasieran muntaiaren lehen kopia bat lortuko dute. Filmearen aurrekontua 1,3 milioi eurokoa da eta produktoreek aurrekontu horren %60 estali dute dagoeneko. Gainerakoa ordaintzeko, Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Kultura Ministerioari eskatu diote laguntza, eta Akitania aldean ere ari dira galdezka. Badirudi, ETBk ere interesa agertu duela.

formari atxikimendua adierazi diotenak: EHNE Nafarroa, ELA Baztan-Bidasoa, LAB Baztan-Bidasoa, Baztango Ezker Abertzalea, Baztandaren Biltzarra, Baztango Mendigoizaleak, Eguzkilore emakumeen elkarte, Erratzuko kultur elkarte, Lekaroz eta Gartzaingo gazteak, Elizondoko Gaztetxea, Metaziri aldizka-

ria, Jo ala jo kultur elkarte, AEK-ko irakasleak eta Baztango Amnistia- ren Aldeko Mugimendua.

Minusbaliatuen egoitza berria

Nafarroako Komunitateko Minusbaliatu Fisikoen eta Organikoen Elkarteak Federazioak egoitza berria zabalduko

du Elizondon, eskualdeko beharrak artatzeko. Haur eskola zaharra zegoen tokian kokatuko dute, eta lanegunetan irekia egonen da (10:00-14:00). Halere, aitzinetik hartu beharko da hitzordua 671 421346ra deituta. Elkarte ezagutarazteko hitzaldi informatiboa eginen da hilaren 22an Arizkunenean, 18:00etan.

Eskisaroi
RESTAURANTE

Jaime Urrutia
Tfn: 948 580 013
ELIZONDO

Bierresenea
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Burriziz auzoa · Tfn: 948 582 043
ORONÓZ · MUGAIRI

Gure Haragia
Nuestra Carne

ZUGARRAMURDI

EUSKARA → EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA AZTERTZEN

Euskararen ikerketa bat egiteko elkarrizketak egin dituzte herrian



Euskal Herriko emakumeak elkarrizketatzen ari dira EHUkoak



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Herrialde bakoitzean teknikari bat ari da lanak biltzen. Ekaitz Santazilia da Nafarroako bilketak egiten dituena eta bera aritu zen Zugarramurdin.

Koro eta Margari

Euskal Herriko Unibertsitatea euskarari buruzko ikerketa bat egiten ari da euskararen bariazioa edo aldaketa neurtzeko intentzioekin.

Hori dela-eta, gan den otsailaren 20an gure herrian egon ziren beharrezkoak ziren datuak hartzen. Zugarramurdin bezala, gure inguruko bertze herri hauetan ere lan egin behar dute (edo egin dute): Donamaria, Erratzu, Etxalar, Ezkurra, Goizueta, Leitza, Lekaroz eta Sunbilla.

ELKARRIZKETAK

Horretarako gisa hundertako ezaugarriak dituzten pertsona bana elkarrizketatzen dute: 45 urte inguruko emakumea, baserri giroa ezagutu duena, baina baserriatik kanpo lan egiten duena;

eta 25 urte inguruko emakumea unibertsitatean ibilia edo dabilena. Herri guztietan ez da izaneren perfila hau osorik betetzen dutenik, eta hainbat herri biltzen direnak hautatzen dituzte.

Behin ikerketa finitu ondotik Interneten ematen dute lan hau, eta horren arabera, aditzen ahal izanen da, adibidez, esaldi bera zein manera diferentetan ahozkatzen den Euskal Herriko hainbat tokitan.

Pertsonaia
Julen UHARTE


Urdazubierra Espainiako txapel-dun motokrosean

Martxoaren 7an jokatu zen Espainiako Kros Country txapelketako hirugarren eta hondarreko proba Huelvan (Espainia), eta Julen Uhartek urdazubierra nagusitu zen senior B kategorian. Lesakako Xabi Etxegarai, berriz, hirugarren izan zen maila berean. Sailkapen nagusian ere urdazubierra izan da txapel-duna, eta lesakarra laugarren gelditu da. Bigidariak kontent gelditu dira egindako lanarekin.

BURKAITZEA
• ostatu
• erretegia
Zugarramurdiko bidua, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

Iñaki Alzueta margoak
Makina dekoratiboa eta inprimatzailea • Oinarrizkoak, estetikak, inbentarioak
Funtzioak • Berezikiak
Lantzea eta berriztatzea • Pintura
Herri eta agurra amaitzen diren garbitzeak
Tel.: 609 802 417 • Bar-Argi ebena - Lantzar Auzoa • 31711 URDAZUBI
ginuras.alzueta@yahoo.es

aroztegia 1890az geroztik
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK
ATAKAK HESIAK
LANGAK BALKOIAK



Arotxa
Miguel Azcárraga
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita
Tel. 948 581 418 / 650 532 073
marotxa@terra.es

Okindegia Jatetxea



Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfnua: 948 453 403
31713 ARIZKUN

SENPERE

EPAIKETA → LABORANTZA GANBARA ETA HERRIKO ETXEA TARTEAN

Pirineo Atlantikoetako prefetak galdu du herriaren kontra egin duen auzia

Herriak laguntzen ahalko du Laborantza Ganbara

Franck DOLOSOR

Herriko Etxeak eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkarteak irabazi dute Philippe Rey Pirineo Atlantikoetako prefetak beren kontra baldua zuen auzia. Afera da prefetak ez zuela batere begi onez ikusten berriki herriak EHLG elkarteari bi mila euroko laguntza emanizana. Gure hautetsi gehienek erabakia kentzea nahi zuen prefetak eta auzitegiat eraman zuen afera.

Ez da lehen aldia Frantziako ordezkariak urratsak egiten dituela EHLGren bidea trabatzeko. Azkenean, justiziak arrazoina eman dio herriari. Laguntza ez da kendu beharko eta, gainerat, prefetak mila euro ordaindu beharko dizkio herriari justiziagatuak estaltzeko.

Jean René Etxegarai abokata pozik da epaia-ekin, horrek erran nahi baitu orain edozoin herriko laguntzen ahal duela EHLG elkarteak. Bere ustez, afera politikoa da jazarpena bertzerik ez egiteko ELHGri. Etxegarairaren erranetan, diru laguntza zilegia eta ona zen elkarte hori lanean ari baita Senperen, bertzeak bertze, zortzi laborari biltzen dituen kooperatiba bat sorrarazteko. Dominique Ildiart axuantak gogoratu du ELHG elkarteak Senperen ari dela lanean eta diru laguntza interes orokorraren alde zela.

Euria biltzeko lanak

Euriteen ura biltzeko lanak eginen ditu Herriko Etxeak. Zonbait obra egiten ari dira aintziran, lparla eta Azkua karriken inguruan; karrika nagusiaren inguruan, Larraburu eta Legarretan; eta Amotzen, Donamartia ondoan. Lanek 78 000 euroko gastua sortu dute eta Hiriari enpresak eginen ditu.

Agur Belle

Aintziran bizi zen Belle beltzarga zendu da berriki zakur baten erasoagatik. Auzapezak dio laster ordezeko bat izanen duela aspalditik aintzirako ikurra zen xori xuriak.

Senpenter bat ETBn

Jokin Etxeberria ETBn agertzen da berriz Chloé bidaiaren emankizunarekin. Dokumental berriak Miami, Pennsylvania eta Tunisian filmatu dituzte bertzeak bertze. ETB2, ETB3 eta www.eitb.com atarian ikus daitezke senpenteraren abenturak.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Ustezko sorginen omenezko oroigarria

Honela gelditu da Basterretxea artistak asmatu eta Jean Michel Bedaxagar arotzak landu duen burdinezko oroigarria, berriki gazteluaren plazan ezarri dena.

ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Camy auzapeza Agirreraren ehorzketan

Martxoaren 22an, mende erdia beteko da Jose Antonio Agirre Eusko Jaurjaritzako lehen lehendakaria zenu zela erbestean, Parisen. Egun batzuen buruan Donibane Lohizunen ehortzi zuten eta orain ere herri hortako hilerrian dago bere hilotza. Donibane Lohizuneko elizan ospatu ziren ehorzketek zer erran handia sortu eta mundua bildu zuten. Orduko agiriak untsa begiratzu agertzen da Senpereko orduko auzapeza, Charles Camy, omenaldi hortan izan zela Lapurdiko hautetsi gehienekin batean. Camy eta Agirre ez ziren baitezpada sentsibilitate berekoak baina Donibanen izan zen azken agurra egiteko gisan.



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iratxe karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

HERRIKO ETXEA
EDXNTEGIX
CAFÉ DE LA MAIRIE

Tl: 0559542519
Maitzen suta Wintropique

SARA

ttipi-ttapa

info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

MONTXO OSTATUA

Dantzarineatik
2 km-tara

ТАВАКО-ДЕНДА
АНЗАН-БОРДА · ВРДАЗЫБИ

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

LITERATURA → 27. BILTZARRA

Enaut Etxamendi eta Alexandre de la Cerda omenduko ditu aurtengo Idazleen Biltzarrak

70 bat idazlek biltzarrean egonen direla baieztatu dute

Xan HARRIAGUE

Aurten ere itzal handiko pertsonak omenduko ditu Sarako Idazleen Biltzarrak. Haietarikoa bat Eñaut Etxamendi izanen da, eta bestea, Alexandre de La Cerda. Etxamendi kantugintzan ezaguna da batez ere, baina literaturan ekarpen zabala egin du, hainbat artikulu, gogoe-ta, ipuin eta eleberrri paperera ekarriz. De la Cerda ez da hain ezaguna, baina jadanik lan adierazgarria egin du Lapurdir buruz, besteak beste, *Entre Nive et Nivelle* liburua argitaratuz.

27.a da aurtengo Bazko astelehenean atek irekiko dituen Idazleen Biltzerra. Goizeko hamarretatik aitzinera iaztik argitaratu diren ehunka berrikuntza ezagutzeko aukera emanen du. Usaia den bezala, haien idazleekin ere hitz egiteko aukera izanen du bisitariak. 70 bat idazlek konfirmatu dute jadanik gure herrian izanen direla apirilaren 5ean.

Urtero bezala, Euskal Herriari buruz lan bat egiten ari diren lagunei hamar beka banatuko dizkie Eusko Ikaskuntzak. Eta horren ondoan margo eta argazki erakustetaz gozatzeko aukera izanen da. Egun osoan bederatzir libururen aurkezpena eginen dira, besteak beste, Aurtin Zamoraren *Sara etxez*

etxe liburuarena, Eneko Bidegainen *Gerla Handia, muga sakona* liburuarena eta Henri Duhauren *Lapurdiko ihauteria eta mutxikoen pizkundea* liburuarena.

Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketa

Gazteak izan dira nagusi aurtengo Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketan, finalean herriko lau gazte aritu baitira. Baina lau horien artean, Bastien Arribillaga eta Ramuntxo Arizkorretak jantzi dute txapela, Elhorga anaiak, Elies eta Rafael menean hartuz.

Bigarren mailan, berriz, Santesteban aitalabek irabazi dute. Finalean errugbi elkarteko



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Joan den urteko biltzarreko irudi bat.

mus txapelketa irabazi zuten Frederic Barretxe eta Jerome Praderen aurka aritu dira. Hirugarren mailan, azkenik, Leizagoien senar-emazteak, Jean eta Christianek irabazi dute Lucie

eta Loustaunau eta Aurelie Ibarluzeri nagusituz.

Garaipen horri esker Arribillagak eta Arizkorretak 500 euroko saria eraman dute etxera eta Santesteban aita-alabek bildotsa.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrek S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

EZKONTZAK

Josu Garmendia Rekalde eta **Bakarne Uitz** **Atxukarro**, Goizuetakoak, otsailaren 27an Goizuetan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Markel Iratzoki Agirre, Lesakakoa, otsailaren 24an.

Oihan Elizalde Mitxelena, Etxalarkoa, otsailaren 26an.

Jose Angel Ortez Mendoza, Doneztebekoa, otsailaren 25ean.

Lur Artieda Iñiguez, Iturengoa, otsailaren 13an.

Dunixe Alberro Isasi, Iturengoa, otsailaren 25ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Emiliano Ariztia Aintziburu, Azpilkue-takoa, otsailaren 25ean, 93 urte.

Jose Maritorea Larrosa, Berakoa, otsailaren 27an, 83 urte.

Pascualita Barrios Gartzia, Berakoa, otsailaren 27an, 80 urte.

Migel Igiñitz Etxeberria, Berakoa, otsailaren 28an, 86 urte

Juan Carlos Behro Apezetxea, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 1ean, 51 urte.

Pedro Bertiz Elizondo, Berakoa, martxoaren 2an, 59 urte.

Gerardo Otondo Zamarrena, Elbetekoa, martxoaren 5ean, 84 urte.

Juan Aranburu Mikeo, Berakoa, martxoaren 7an, 74 urte.



Felixi ORDOKI AGIRRE

Arantzán, 2010eko otsailaren 11n

Alaitasunezko dizdiratan bihotza eta azala baratzetik larraineraino soinean zure mantala maitasunezko emari betez eskainitako magala zure izenak eta izanak adierazi bezala beti gurekin izango dugu utzi diguzun itzala.

ZURE FAMILIA



Joxe ITURRARTE GARMENDIA

Leitzakoa, Argentinan hil zen
2010eko ilbeltzaren 2an

Gurekin geldituko dira betirako elkarrekin pasatu ditugun lagunarte atseginak.

**BERE OROIMENEZ MEZA IZANEN DA
MARTXOAREN 19AN 11:00ETAN
LEITZAKO ELIZAN**



Juanito ARANBURU MIKEO

Berakoa, 2010eko martxoaren 7an
hil zen 74 urte zituela

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE FAMILIA

AIZKORA → URREZKO BINAKAKO TXAPELKETA

Larretxea aita-semeak nagusi Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan

Sei probatik bortz irabazi dituzte larretxeatarrek

TTIPI-TTAPA | AZPEITIA

Donato Larretxea Arantzako aizkolaria Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan, bere bosgarren txapela irabazi du, baina guztietan bereziena beharbada hazken hau izanen da: Oihan 19 urteko semearekin irabazi baitu. Otsailaren 27an jokatu zen Azpeitian txapelketareko hamargarren edizio honetako finala, eta larretxeatarrek Igeldoko (Gipuzkoa) Jose Etxebeste eta Joxemari Olasagasti izan zituzten kontrario.

Lan txukuna egin zuten aita-semeek, eta hortaz, nahiko abudo erabaki zen txapela. Hala ere, lehenbiziko proba gipuzkoarrentzat izan zen. 45 ontzako enborra zeinek kolpe guttiagotan moztu. Horixe egin behar izan zuten hasteko, eta 43 kolpetan moztu zuten gipuzkoarrek, eta 45etan Larretxeatarrek.

Bigarren lanean zutikako oinbikoa moztu behar izan zuten, eta aita-semeek 3 minutu eta 52 segundotan bota zuten enborra, eta igeldoarrek 4 minutu eta 40 segundotan.

Hirugarrenean, 45 ontzako bi enbor ebaki behar izan zituzten, bakoi-tzak bana. Honetan, minutu eta 25 segundo behar izan zituzten nafarrek, eta 17 segundo gehiago gipuzkoarrek.

Laugarren saioan—45 ontzako bat zutik eta bertzea etzanda moztu—, 2 minutu eta 2 segundotan bukatu zituzten lanak larretxeatarrek eta 18 segundo beranduago Igeldoko semeek.

Bosgarren lanean—80 ontzako enborra erdibitu—, 4 minutu eta 2 segundo behar izan zituzten Donatok eta Oihanek eta 23 segundo gehiago gipuzkoarrek.

Seigarren eta azken proban, 45 ontzako bi enbor, bi kanaerdiko, 60 ontzako bi eta bi oinbiko erdibitu zituzten, eta honetan ere nagusitu ziren nafarrak: 18 minutuz egin zituzten lanak; gipuzkoarrek, berriz, 18 minutu eta 55 segundotan.

Guztira, beraz, 30 minutu eta 6 segundo be-



ARGAZKIA: GERARDO BENGOA

Larretxea aita-semeak zutikako enborrarekin lanean.

har izan zituzten aita-semeek, eta 32 minutu eta 45 segundo Etxebestek eta Olasagastik. Txapela soinean, gustu-

ra gelditu ziren larretxeatarrek: «aita batentzat hau ikaragarria da. Ez dut uste inoiz aita batek semearekin maila honeta-

ko txapel bat lortu duenek», erran zuen Donatok. Semea ere kontent, noski: «aitarekin txapela lortzea ikaragarria da».

Zilarrezko mailan Olano eta Saralegi nagusi

Bortz segundogatik leitzarrak txapeldun

TTIPI-TTAPA

Zilarrezko Mailan ere txapela eskualdera etorri da: Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano leitzarrentzat izan baita. Baina guttiatik. Bortz segundoko aldea atera baitzietan Mutrikuko Ugaitz eta Aratz Mugertza anaiei.

45 ontzako enborra zeinek kolpe gutxiagotan moztuz hasi zuten lehia, eta Saralegik eta Olanok 30ekin bota zuten; 36tan, berriz, Mu-



ARGAZKIA: GERARDO BENGOA

Saralegi —aizkorarekin— eta Olano —behean—.

gertza anaiek.

Bigarren proba —45 ontzako bi enbor— ere Saralegi eta Olanorentzat izan zen, minutu eta 40 segundo behar izan baitzituzten, eta gipuzkoarrek, berriz, bortz se-

gundo gehiago.

Hirugarren lana 36 ontzako bat zutik eta 45 ontzako etzanda mozte izan zen, eta minutu eta 32 segundotan bukatu zituzten lanak txapeldunek, eta 10 segun-

do beranduago mugertzatarrek.

Laugarren saioan—60 ontzako enborra txanda librea—, minutu eta 43 segundoko denbora egin zuten Saralegik eta Olanok, eta segundo bat gehiago behar izan zuten gipuzkoarrek.

Azken proba, ordea, mutrikuarrek irabazi zuten. Bi kanaerdiko eta 60 ontzako bi moztu behar izan zituzten, eta gipuzkoarrek 10 minutu eta 8 segundotan egin zutena, 17 segundo gehiagotan egin zuten leitzarrek.

Lan guztiak 15:50ean egin zituzten leitzarrek, eta 15:55ean mutrikuarrek.

MENDI LASTERKETA → BOSGARREN EDIZIOA

Sara Korrika Trail lasterkaldia martxoaren 28an egingen da

Izen-emateko epea martxoaren 22a arte zabalik

TTIPI-TTAPA | SARA

Bosgarren urtez segidan, Sara Korrika Trail lasterkaldia egingen da martxoaren 28an. Urte tik urtera indartzen doan proba da eta horren seinale da lasterkari kopuruaren gorakada. 2006an 200 lasterkarik parte hartu zuten, eta 2009an 450ek. Aurten goan gehieneko kopurua 500ekoa izanen da.

Larun mendiko mazelatik iraganen itzuliak 25 kilometro izanen ditu, 1.443 metroko desnibel positiboa eta 1.442



ARGAZKIA: WWW.SARAKORRIKA.COM

Korrikalari kuadrilla maldan goiti duela bi urteko lasterkaldian.

metroko desnibel negatiboa.

Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, eta martxoaren 22ra arte izanen da aukera. Honen inguruko in-

formazio gehiago www.sarakorrika.com web orian.

Egun haundian, hilaren 28an 07:30ean hasiko dira lasterkariak Sarako plazan biltzen;

08:45ean emakumezkoen lasterkaldia abiatuko da eta 09:00etan gizonetzkoena. Olhaingo lepora bi oren eta erdiz heldu beharko dute, bertela erretiratu egin be-

IBILBIDEA

Puntu hauek igaro beharko dituzte kirolariek:

- Treinbidea zeharkatu (527 m - 4,684 km)
- Hiru iturrietako lepoa (543 m - 6,547 km)
- Atekaleun (728 m - 7,304 km)
- Hegoaldera pasatu (650 m - 7,706 km)
- Beltxa Benta (312 m - 10,09 km)
- Haroztegiko borda (249 m - 13,292 km)
- Olhaingo lepoa (349 m - 14,083 km)
- 654 Paota (654 m - 16,619 km)
- Atekaleun (728 m - 17,846 km)
- Hiru iturrietako lepoa (543 m - 18,942 km)
- Treinbidea zeharkatu (527 m - 18,942 km)
- Urontzia (230 m - 20,283 km)
- Helmuga (25 km)

harko baitute. Gainera, 11:00etan irabazleak ailegatzen hasiko dira, 13:00etan sariak banatuko dira eta 14:00etan talo-atea izanen da.

PILOTA → ERREMONTEAREN ETORKIZUNA

Galarreta enpresaren etorkizuna eztabaidatzen ari dira enpresariak

Oraingo buruek martxoaren 31n itxiko dutela iragarria dute

TTIPI-TTAPA | HERNANI

Erremonte profesionalaren etorkizuna zalantzan dago. Azken 40 urteotan Hernaniko Galarreta eta Uharteko Eus-

kal Jai pilotalekuetan erremonteko jaialdiak antolatu izan dituen Galarreta enpresak erremonte profesionala martxoaren 31n utziko duela adieraziaz baitu.

Arrazoi ekonomikoak daude enpresaren itxieraren gibelean. Azken bozpasei urteetan beharrekada izan dutela azaldu zuten Galarretako bu-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskualdeko erremontelari aunitz ari dira profesionaletan, tartean, Miguel Mari Urrutia saldiastarra, Gorka Urtaşun iruritarra, *Gaztelu* leitzarria eta Koteto Ezkurra doneztebarra.

ruek itxieraren berri eman zutenean, eta azken bi urteak «are larriagoak» izan omen dira.

Oraingo nagusiek aitzinerara segitu ezin duten arren, enpresa berriek atek zabalik dituztela aitapatua dute. Hain zuzen,

horri erantzunez Maxi Samper Euskal Jai Berri enpresako kidea interesatua agertu da. Enpresariak urtebeteko kontratua eskaini die erremontistei eta kirola berpizteko inbertsioak egiteko prest dago. Gaine-

ra, hasiera batean Galarreta enpresari egindako eskaintza %20 hobetu du eta enpresaren erantzuna martxoaren 20a baino lehen jakin nahi duela erran du. Lerro hauek idazterakoan hori zen azken orduko berria.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Malerrekako Eskuz Binakako Txapelketako finalak aritu diren pilotariak eta antolatzaileak, sari banaketaren ondotik.

PILOTA → MALERREKAKO ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

Malerrekako VIII. Eskuz Binakako Txapelketako finalak jokatu dira

Maila nagusiko finala Irigoien eta Iparragirrek irabazi dute

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Erreka elkarteak zor-tzigarren urtez antolatutako Eskuz Binakako Pilota txapelketaren finalak jokatu ziren otsailaren 27an Doneztebeko udal pilotalekuan.

Benjaminetan, Igan-tziko Biltokiko Mitxeo eta Telletxeak 18-12 irabazi zieten Goizuetako Umorre Onako Aizkorbe eta Apezetxeari. **Alebinetan**, Errekako Salaberria goizuetarrak eta Oberenako Mariezkurrenak 18-16 irabazi zieten Errioxako Titin III.eko Saenz eta Azpeitiko Ilunpeko Alberdiri.

Infantiletan, Biltokiko Unai Telletxeak eta Txapagaineko Iribarriak 18-8 irabazi zieten Burla-tako Zugarraldeko La-

runbe eta Sarasari. **Kadeteen mailan**, Titin III.eko Iturriagak eta Aurrera Saiazeko Labakak 18-12 irabazi zieten Aurrera Saiazeko Zelaia eta Elustondori.

Jubeniletan, Ilunpeko Etxaniz eta Aizpuruk 22-8 irabazi zieten Errekako Oronoz eta Txarutako Jauregiri. **22 urtez beheitiko kategorian**, Aldabideko Joseba Ezkurdiak eta Lukinek 22-13 irabazi zieten Mattin Ezkurdia eta Araña taldekideei.

Eliteko final nagusian, Lesakako Mololo Irigoien eta Leitzako Iñaki Iparragirrek 22-12 irabazi zieten Aurrera Saiazeko Renobales eta Uharteko Landiribarri.

Finalen ondotik, sari banaketaren txanda izan zen eta horretan aritu ziren Ruben Beloki eta Mikel Olazabal pilotari profesionalak, Jabierto Almandoz Nafarroako Kutxako Doneztebeko bu-

legoko zuzendaria, Miguel San Miguel Doneztebeko alkatea eta Juan Telletxea Errekako presidentea. Elite mailako txapeladunak 800 euro esku-ratu zituzten eta 700 euro azpitxapeladunak.

Bertzalde, bi urdaiaz-piko zozketatu ziren eta antolatzaileek oroigarria eman zioten Renobalesi, laugarrenez segidan elite mailako finala jokatu duelako. Antolatzaileek eskerrak ere eman zizkieten laguntzaileei: Reyno de Navarra, Nafarroako Kutxa, Doneztebeko Udala, Nafarroako Pilota Federazioa, Casa

Ostiz, Big Mat Menditxuri, Lur aretoa eta Aparan.

BIGARREN MAILAKOAK

Bezperan, Errekako pilotariak jokatu duten bigarren mailako txapelketaren finalak egin ziren. Buruz buru, **aurrebenjamin A mailan** Urko Oiartzabalek 18-9 irabazi zion Aitor Agestari eta **B mailan**, Pello Seinek 18-1 irabazi zion Oier Rodriguezi. Hirugarren mailako **benjaminetan**, David Mitxeok 18-8 irabazi zion Eneko Maylini eta bigarren mailakoan, Aimar Zestauk 18-4 Mikel Bangori.

Benjamina, lehen mailako **benjaminetan**, Asier Arozena eta Unai Ibarrek 18-10 irabazi zieten Aimar Saldias eta Ioritz Zelaietari. Bigarren mailako **alebinetan**, Julen Inda eta Beñat Lazkanok 18-11 irabazi zieten Julen Larretxea eta Julen Saldiasi. Bigarren mailako **infantiletan**, Iker Mariezkurrenak eta Javier Saldiasak 18-16 irabazi zieten Aritz Fagoaga eta Javier Seini. Bigarren mailako **jubeniletan**, Mikel Maia eta Julen Altxuk 22-16 irabazi zieten Ibai Juanena eta Unai Mariezkurrenari.

DATUA

7

FINAL

jokatu ziren Donezteben, hasi benjaminetatik eta maila nagusia bitarte.



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Elite mailako txapeladunak, Iparragirre eta Irigoien, Beloki eta Miguel San Miguel Doneztebeko alkatea ondoan dituztela.

martxoak 18-31

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



ELIZONDO | 2010.03.20

Ken Zazpiren emanaldia Lur dantzalekuan

Ken Zazpi taldeak kontzertua eskainiko du larunbat gauerdetik aitzinera Lurren. Lesakan hasitako bertso festa bukatzeko modu egokia izanen da.

Ipuin kontalariak



BERA | 2010.03.26

Estitxu Mentaberri ipuin kontalaria Liburutegian

Klin, klan, klon; begiak itxi eta egon; Klin, klan, klin; entzun eta ipuinak egin. Halaxe ibiliko dira Berako neska-mutikoak 18:00etatik aitzinera.

Bideo emanaldiak



BERA | 2010.03.21

Shoot an Elephant bideoa ikusgai Kaxerna Gaztetxean

2008ko abenduaren 27tik aurrera *Cast lead* (Berun urtua) izeneko operazioa burutu zuen hiru astez Israelek Gazan. Rudi ikaragarriak bideoan.

Martxoaren 26an

Estitxu Mentaberri ipuin kontalaria 18:00etan Liburutegian.

Hitzaldiak

ELIZONDO

Minusbaliatuen elkartearen ezagutzeko

Martxoaren 22an COCEMFE Nafarroako Minusbaliatu Fisikoen eta Organikoen Elkarteak egoitza irekiko du Elizondon. Elkartearen ezagutarazteko hitzaldi informatiboa martxoaren 22an Arizkunenean, 18:00etan.

Baztango ikurra**Martxoaren 26an**

XVII. mendeko Baztango Balleko ikurraren aurkezpena Balleko Etxean 16:00etatik 20:30era.

Donejakue Bidea

Martxoaren 31n Donejakuea Bidea eta Bidearen zentzua solasaldia eskainiko du Nafarroako Unibertsitateko Agustin Gonzalez Encisok 19:30ean Arizkunenean.

Tailerrak

ELIZONDO

Pintura tailerra

Urtarriletik ekaina arte pintura tailerra Arizkunenean (17:00-21:00). Apuntatzeko: 609 329618.

PC-a birusetatik libre

Martxoaren 18tik 22ra Arizkunenean izena eman daiteke *Zure PC-a birusetatik libre mantentzeko aholku batzuk* lantegi irekian parte hartzeko.

Bertsoak

LESAKA

Nafarroako txapelketaren finala**Erakusketak**

IRURITA

Narciso Rotaren margo erakusketa

Apirilaren 4a bitarte Narciso Rota margolariaren olio, akuarela eta esmalte lanen erakusketa izanen da Olari jatetxean.

URDAZUBI

Euskal pinturaren 50 urte erakusketa

2011ko urtarrilaren 2a arte ikusgai izanen da Urdazubiko monastegiko klaustroan gaur egungo euskal margolari eta eskultore garrantzitsuenen 300 artelan. Asteazketatik ortziratera 14:00etatik 18:30era. Larunbat, igande, besta eta opor eguntan 11:00etatik 19:00etara.

ELIZONDO

Zenútarrei buruzko argazki erakusketa**Martxoaren 3tik 27ra**

Los Zenú, trenzando esperanza argazki erakusketa ikusgai Arizkunenean. Antolatzailea: Compartir Navarra.

Ospakizunak

ARANTZA

Mozorro besta

Martxoaren 27an meza ondotik herri-kirol saioa eta bertso-afaria antolatu dituzte Mozorro Xuriek.

BERROETA

Asteburu Kulturala

Martxoaren 19tik 21era Asteburu Kulturala antolatu dute Berroetan: ipuin kontaketa, kantu afaria, jolasak, mus txapelketa,

Herri Kirol Jolasak... Xehetasunak 25. orri-an.

Kontzertuak

ELIZONDO

Ken Zazpi Lur dantzalekuan

Martxoaren 20an Ken Zazpi taldearen kontzertua gauerdetik aitzinera Lur dantzalekuan. Sarrerak: 12 euro aitzinetik (Elizondon Antxitonean eta Txokoton, Lesakan Atxaspin eta Iruñeko El Infierniton) eta 15 euro takilan.

GARTZAIN

Zakartu Rock besta

Martxoaren 27an Errugabe, Kaskezur, Ufestuek, Mugalariak, Zoldak, Askatu uli beltzak, Komando Kastaña eta Ratakalbaren kontzertua 17:00etan hasita. 14:00etan bazkaria eta gero bertsolariak.

Ipuinak

BERA

Haurrentzako ipuin kontalaria

PROPOSAMENA

LESAKA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala

Martxoaren 20an, larunbatean, 17:00etan hasita jokatu da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren final handia Lesakako udal pilotalekuan. Argazkian ageri diren Julio Soto, Xabier Terreros, Oskar Estanga eta Estitxu Arozenarekin batera, Xabier Legarreta, Arkaitz Goikoetxea, Eneko Lazkoz eta Julen Zelaieta ariko dira txapelaren bila.



Martxoaren 20an Na-farroako Bertsolari Txapelketako finala jokatu da 17:00etan udal pilotalekuan: Julio Soto, Xabier Legarreta, Arkaitz Goikoetxea, Estitxu Arozena, Oskar Estanga, Xabier Terros, Eneko Lazkoz eta Julen Zelaieta.

BERA

Bertso afaria

Martxoaren 27an Agerra Mendi Taldeak antolatuta Amets Arzallus eta Sebastian Liza-sorekin bertso-afaria. Txartelak 24 eurotan Errekalde ostatuan.

Emanaldiak

BERA

Gazako egoeraz bideoa

Martxoaren 21ean *To shoot an Elephant* bideoa ikusgai Kaxerna Gaztetxean, 18:00etan.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Martxoaren 21ean Urrizpilotara.
Martxoaren 28an Txarutara.

BERA

Larun Ttikiren ateraldia

Martxoaren 28an Sararat irteera, Manttale animatzera. 09:30ean abiatu lamoteneatik eta Lizuniagaraino kotxez.

ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi taldea

Martxoaren 28an Ezkabara ateraldia eginen du Atxuriak.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Far Westeko Euskal Herria

ASUN GARIKANO

Pamiela, 2010

Ameriketako Mendebalde Urruneko paisaia, pioneroak eta urre-bilatzaileak, saloon-ak eta diligitziak, ganadu garraiatzaileak, artzainen eta abeltzainen arteko liskarrak, indioak, cowboy harrokoak eta hiltzaile kontratatuak... Azken batean, Far West zaharraren historia, baina oraingo honetan ez Hollywooden bertsioan, baizik eta han ibili ziren eta herrialde hura altxatzen lagundu zuten euskaldunek kontatua. Aldi berean, euskaldunak emigratzaile izan ziren garaiko kontuak. Aspaldi ez dela, milaka gazte euskaldunek utzi zuten beren etxea. Askok ilegal izatearen drama bizi izan zuten, hizkuntza eta ohiturak ez jakiteagatik arlote sentitu ziren. Zorionez, hala ere, beren sarea erakitzen jakin zuten eta, horri esker, gizarte berrian errazago integratzeaz gain, jaioterrira lotzen zituzten hariak tinko iraun zuen. Martxoaren 6an egin zen liburuaren aurkezpen ofiziala Senpereko Amotz auzoko Larraldean.

Musika



[4 dimentsio]

SOROTAN BABIES

Sara eta Berako musikariek osatzen dute Sorotan Babies rock-metal taldea: Iñaki baterian, Iñigo baxuan, *Tanas* eta *Liam* gitarrekin eta Xanti eta Xabiren ahotsak. Lehendik ere badute eskarmentua musikan, Sarako BKBO eta bertze hainbat taldeetan ibilitakoak baitira. Hondarribiko Sorotan Bele talde mitikoan oinarritu dira taldearekin emateko, baina musikan zerikusi gutti dute bi taldeek, musika gogorra baita Sorotan Babiesena. Zazpi kantuz osatutako diska hau 2009ko udaberrian Sarako Ona gazteluan grabatua izan da. Iñigo Irazo-kiren eskutik izan da grabazioa, nahasketa eta masterizazioak. Hitzak Xabik idatzi ditu, *Arrazoin* (Tristan eta Xabi) eta *Gore gin* (Xumai) kantuak izan ezik. Diska zenbait ostaturat salgai eta honako webgunean aditu daiteke: www.myspace.com/thesorotانبabies. Zuzenean aditzeko, martxoaren 19an Gasteizko Gaztetxean eta apirilaren 24ean Donibane Garaziko Kalakan duzue aukera.

Internet



Interneteko albistegia eta eztabaida bloga

WWW.SUSTATU.COM

Interneteko albistegi bat da Sustatu. 2001eko azaroan sortu zen: euskarazko lehen blogetakoa izan zen, eta orain ere webloga izaten jarraitzen du nagusiki. Weblog kolektiboa, non artikulua nagusiak idazteko aukera irakurleen esku ere badagoen. *Sustatu.com* Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta CodeSyntax Interneteko zerbitzu-enpresak sortutako ekimena da. Leihon nagusian, albisteak, bideoak eta bertzelako jakingarriak ageri dira eta eskuin aldeko leihotan, albiste horiek sortu dituzten azken erantzunak. Erantzun gehien bildu dituzten albisteak pil-pilean! izeneko leihotan ageri dira. Ba al dakizue zein zen joan den astearen Pil-pilean zegoen albistea? Xabier Silveirak Garan idatzitako «Euskara al da putre egiten gaituena?» artikulua eta honi emandako erantzunak.

Nire aukera



Ainhoa ANSA
Aranoko gaztea

Ikasle fina izanen nintzateke «Eguna nola antolatu» ikastaro batean

Badihardugu Euskeraren Elkartearen *ahotsak.com* proiektuan dabil Ainhoa Ansa, Gipuzkoako Beterrri inguruko edadeko jendeari elkarrizketak egiten, baina eskulanak dira bere benetako afizioa: «Bazterrean utzitako trasteak berrerabiltzea asko gustatzen zait. Baina denbora behar izaten da eta ez dut hartzen». Gitarra ere zoko xamarrean utzita dauka... «Egun lasai bat tokatu ko balitzait, buruan dudan kanturen bat papelean idatzi eta grabatzea gustatuko litzaidake». Asteburuan, «goiz edo eguarterean mendi buelta txiki bat egin, naturaz gozatu, etxekoe kin egon, afariren bat lagunekin eta ahal bada kantu saio inprobisatu bat ondolik... eta hurrengo egunean, etxeko lanetan pixka bat aurreratu eta astelehenerako gorputza eta burua lasai-lasai prestatu. Astelehenean, berriz atzera, 'gerrara'!». Oporretan ez da urrutira ateratzen. Norbaitek *Eguna nola antolatu* ikastaroa emanen balu, «ikasle fina izaten saiatuko nintzateke» dio Ainhoak.

ETXEBIZITZAK
salgai

BERA. Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldea balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845/ elvetearra@ao.com.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Berogailua. Denaberritua. Aparkaleku pribatua. ☎657 715243 / 657 799953.

LESAKA. Etxebizitza salgai. ☎609 477277/618 188300.

BAZTAN. 105 m²ko pisu moblezatua salgai, behoko solairuan. Aukera ona. ☎670 410556.

LEITZA. Herri erdian 3 logelako pisua, egongela, sukaldea eta bainua. Berogailua gas naturalarekin. Zaharberitua. 5. solairuan eta igogailua. 210.000 euro. ☎679 321333.

ORONOZ. Etxea salgai. 5 logela, 3 komun, sukaldea, egongela eta trastelekua. ☎677 072437.

ETXALAR. Lizaietako paraje zaharberitze-ko borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

NARBARTE. 107 m²ko pisua, 17 m²ko garajea eta

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

100 m²ko baratzearekin. Eraikin berean 65 m²ko lokal komertziala ere salgai. Pisuak 3 logela, sukalde-jantokia, egongela, despentsa eta berogailua ditu. Hegomendebaldera orientatua. ☎646 021262.

LEITZA. 83 m²ko pisua salgai. Eguzkitsua. ☎948 625212/ 652 730155.

DONETZEBE. Rosa Seminarion pisua salgai. 3 logela, 2 bainu, sukalde moblezatua ganbararekin komunikatua. Garaje plaza. 162.300 euro. ☎680 781632.

ETXEBIZITZAK
erosi

ARANTZA. Borda erosi-ko nuke. ☎653 122074.

ETXEBIZITZAK
errentan eman

DONEZTEBE. Pisua errentan ematen da. Be-

rogailuarekin eta moblez-
tatua. ☎628 045374.

BERA. Itzea karrikan pisu moblezatua errentan emateko. 2 logela, argitsua eta berogailuarekin. ☎653 015877.

BERA. Pisua errentan emateko. ☎606 022378/ 609 209295.

BERA. Pisu ttikia errentan. ☎699 864604.

BURLATA. Egoera onen dagoen pisua errentan emateko. 3 logela eta berogailuarekin. ☎639 755971.

BERA. Gela guztiek kanpora ematen duten pisu berrietua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. Berogailua eta igogailuarekin. ☎647 712676.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

BERA. Pisua errentan

hartu nahi da. ☎620 361964.

LESAKA. Etxebizitza edo pisua errentan hartu nahi da. Zaharberitua behar bada, horretarako prest. Erostea aukera. ☎609 477277.

ETXALAR. Pisua errentan hartuko nuke. ☎661 277943.

ETXEBIZITZAK
konpartitu

EZKURRA aldean baserri bateko pisua konpartitzea. Bikoteak ez dira nahi. ☎650 452851.

LANA
eskariak

Emakume euskalduna edozein lanetan ariko litzateke. Egunez ala gauzez, adineko pertsonak zaintzen, etxea garbitzen eta abar. ☎664 545925.

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guztetako zurgin lanak
- Eskatu surretantokak konpromisarik gabe
Jon Bernal Erretorik
Tel. 948 634 668 - 647 870 144
Gertutako: ARANTZA

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

IGANTZI. Lokal komertziala errentan edo tras-pasoan emateko. Estetika zentrua edo ile-apaindegirako aproposa. ☎663 881813.

LESAKA. 80 m²ko lokal komertziala salgai, Bitturia 70-ean. ☎618 245895.

GARAJEAK/LOKALAK
konpartitu

DONEZTEBE. Dizdira elkarrekin lokala konpartituko luke. ☎948 451443/ 687 976828 (Eduarne).

LANA
eskaintzak

ARIZKUN. Señorío de Ursua hotelean lan egiteko jendea behar da. ☎948 453500.

MOTORRAK
salgai

Renault Grand Space 2.2 BTI autoa salgai, 150 CV, 2004koa. Extra aunitz (larruzko eserlekuak, sabai panoramikoa, sei plaza, GPS, gortinak leiho guztietan, klimatizagailua...). ☎619 988830.

Peugeot 306 TD autoa

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(otsailaren 26tik martxoaren 5era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 52,00 € (=)

Zerri gizena
1,145 € kilo. (+0,015)

Zerramak:
0,420€ Kg/bizirik. (+0,015)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,89 (=)

1.koa 3,59 (=)

2.koa 3,89 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,99 (=)

1.koa 3,69 (=)

2.koa 2,99 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,70/2,80
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,30/6,70
8-10 kilokoak: 4,20/4,60

salgai. 90 zaldi. Xuria eta hiru atekoa. Alpine CD irratikargadorearekin. Llantak. ITV pasatu berria. NAW. 154.000 kilometro. Egoera onean. Prezioa: 1.800 euro. ☎677 453441.

Ford Maverick autoa salgai. Egoera onean. 1998. urtekoa. ☎620 538398.

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

GANIX
TAILERRA
ibilgailuen mekanika eta elektrizitate
BERA FIAT zerbitzua
Berlondeta, 9 - Tel: 948 430 649

ANIMALIAK
salerosketak

Artzain zakur alemania-

rra salgai, arraza garbikoa, pedigiarekin eta paperekin. Zaindari bikaina. 2 urtekoa. Ezin gara beretz arduratu. ☎689 246850.



BERA. Ahuntz aker gaztea salgai. ☎600 527494.

Ahari mutur beltza salgai, adarduna eta arraza onekoa. ☎618 962563.

5 behi eta poni bat salgai. ☎680 265671.

DENETARIK
galdu-aurkituak

ZALAIN ZOKO. Trenbidean betaurreko graduatuak aurkitu dira. ☎948 630052.

DENETARIK
salerosketak

Sukalde ekonomika kalfaktora salgai. egoera onean. ☎620 520010.

Gutti erabilitako **garbigailua** salgai. ☎948 610865/617 595853

Belar idorren boloak eta lastoa salgai. ☎690 776147.

Ferrolri **gasolio berogailua** salgai. Oso egoera onean eta gutxi erabilia. ☎618 962777.



Ardiak bazkatzeko alde bakarreko burdinezko **segalea** salgai, 18m x 70 m neurrikoa eta 20 ardi

RENAULT SANTESTEBAN Tailerrak

TRAFFIC 1.6 DCI 110CV
9 plaza eta -2000km - 18.300 km

TRAFFIC FURGON 1.6 DCI 110CV
2000km - 22.400 km

ETA GAINERA
KANGOO FURGON 1.9 D
2000 urtekoa - 35.000 km

PEUGEOT BOXER
FURGON 2.8 125 CV
2000 urtekoa - 125.000 km

TRAFFIC 1.6 DCI 110CV
4 plaza eta - 2007koa - 44.000 km

DONEZTEBEKO RENALUT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZAK

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizalua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

irezteko burdinezko segalea bere aulki mugikorrearekin. ☎619 116995.

Animalien pasabidea

mugatzen duen burdinezko parrilla sendoa salgai, 3,10m x 1,70m neurrikoa. ☎619 116995.

CAMPING RIZTIGAIN

martxoak 19
berriro ere zabalik!

OSTATU JATETXEA

- pintxoak,
- bokatak,
- razioak,
- plater konbinatuak,
- menuak
- karta

31791 SUNBILLA
NAFARROA
Tel. 948 450 540
607 446 909 660 798 249
info@ariztigain.es
www.ariztigain.es

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



JULEN SANTESTEBAN BENDOIRO zubietarrak 8 urte bete ditu martxoaren 12an. Zorionak familia eta batez ere Karmele eta Endikaren partetik



IRENE ZELAIETAK martxoaren 6an urteak bete ditu. Zorionak! eta ongi pasa eguna, zure familiaren partetik. Muxu aunitz!



Aunitz urtez pitxi! Ai zu... espero dugu 17 urterekin formaltasun pixka bat ekaritzea! Tiraldi eder bat kuadrillaren partetik! Eta disfrutatu, ze ostia!!



Gazteluko **MIKEL TELLETXEA SARROTEAK** 3 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak eta musu bat familia eta berexiki anaia Josebarraren partetik.



MAIALEN URROZ GONZALEZek martxoaren 12an 6 urte bete ditu. Zorionak eta musuak Irune, Mikel, Amaia, atta, ama, osaba-izeba eta familia guzia.




Bi sorgin hauek apirilaren 9an eta 2an urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu handi bat!



MIKEL BALLARENA elizondarrak martxoaren 13an 10 urte bete ditu eta **FERNANDO BALLARENA** bere aitak martxoaren 19an urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta ongi pasa zuen eguna. Familia guziaren partetik.



Aurtizko **RUBIAK** urteak beteko ditu martxoaren 28an. Probexu «solteratako» azken urtebetetzea, gero urteak binaka datoz eta!



SAIOA beratarrak urteak beteko ditu martxoaren 21ean. Zorionak eta muxu handi bat Ane, Amaia, Maitane eta Alaitzen partetik. Ongi pasa eguna!



Zubietako **UXUE SANTESTEBAN OTXANDORENAK** 3 urte bete ditu martxoaren 13an. Zorionak! Familia eta berexiki Naroa, Garazi, Iker eta Ekaitz.



Erratzuko **IKER ITURBURUA** eta **ENAIZ BIKONDOK** martxoaren 11n eta 18an 7 urte eta urtea beteko dituzte. Zorionak eta muxuak etxeko familiaren partetik, berexiki Aritz eta Naroaren partetik.



LEIRE ARIZTEGI ANTXORDOKI lesakarrak 2 urte bete ditu martxoaren 3an. Zorionak etxeko piperriari, Maddi, amatxo eta attaren partetik. Muxu erraldoi bat!!!



Aranoko **ENERITZ SALABERRIA NARBATEK** martxoaren 22an 5 urte beteko ditu. Zorionak. *Eneritz heldu zera "kupleañon" mugara; bost urteko iada, nabaritzen zaizula irria ta algara, neskatoa ederra egiten ai zara eskola pozik zoaz sekulan ez laga, mundu jiran eztago holako alaba.*



ARITZ ARANBERRI GOIAK 4 urte bete ditu martxoaren 17an. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.




Lesakako **ARITZENTZAKO** zorionak!! Lau muxu handi handi eta besarkada erraldoi bat!



EKIÑE MINDEGIA aurtiztarrak apirilaren 2an 12 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat atta, ama, Arkaitz, Miren, Xabi eta Ainararen partetik. Afari goxoa prestatu!



Leitzako **HARITZ** eta **AIMAR AZPIROTXAK** martxoaren 23an eta apirilaren 4an, 4 eta 2 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu handi bana!



UXUE SANTESTEBAN OTXANDORENA zubietarrak urteak bete ditu martxoaren 13an. Zorionak eta muxu handi bat Leitzako familiaren partetik.



Igantziako **MANEXEK** martxoaren 14an 4 urte bete ditu, aunitz urtez mattial!!!



VIRGINIA GOIENETXE GONZALEZ lesakarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 3an. Zorionak, besarkada handi bat eta muxu handi bat aunitz maite zaituen familiaren partetik.



Gure neskatxak 9 urte bete ditu martxoaren 15ean. Muxu handi bat familia guztien partetik eta oso ongi pasa eguna. Zorionak Uxue!

URTEBETETZEAK www.ttipi.net


Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

behetik
Añorga-Ixiki, 14 behea
T. 943 368 781
671 073 888
www.behetik.com

plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...

2010ean ere...
Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!



Eginzazu **TTIPI-TTAPA**ren alde proiektu zenbakia:

15.996

Esku ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2010eko abenduaren 31a baino lehen.

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

10



FINALA

Martxoaren 20an
LESAKAko Pilotalekuan
17:00etan

Julio Soto, Arkaitz Goikoetxea
Xabier Legarreta "Arano",
Estitxu Arozena, Oskar Estanga,
Xabier Terreros, Eneko Lazkoz
Julen Zelaieta

Sarrerak: www.bertsosarrerak.eu



Laguntzailea:



TTIPI-TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

ttipi-txartela

DESKONTUAK

ZOZKETAK

ALDIZKARIA
MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

513 ALEKO IRABAZLEAK

* TTIPI-SASKIA

Elixabet Telletxea | Beintza Labaien

* ARTIC 2 SARRERA

Begoña Arretxea | Lesaka

* ELKAR 2 LIBURUA

Begoña Arizmendi | Gartzain

* ONIN ART KAMISETA

M^a Luisa Bengoetxea | Bera

* KALOTXA LOTEA

M^a Eugenia Mayora | Elizondo

ZORIONAK

* Hilabete bateko epea
sariak biltzeko

ZOZKETAK

ttipi-txarteldun guzien artean
zozketatuko dira sari hauek



KAMISETA 1
ONDDO
TA PUNTO

www.onddotapunto.com



LOTEA
KALOTXA
OPARIAK ETA
OSAGARRIAK



XABI ABURRUZAGA
MUSIKA CDA
ELKAR
www.elkar.com



LOTEA
MARTIKO
www.martiko.com



2 LIBURU
EREIN
www.erein.com

2 SARRERA
CAMELOT PARK



DESKONTUAK

Denda hauetan eta aunitz gehiagotan!
ERABILI ZURE TXARTELA!

Agara
kirolak
%5 kirol artikuluetan

Amaia
buki eta estremo zentzua
%5 kosmetikan %10 oparietan

MASTER
ALTZURI
%5 etxe-tresnetan

BERAUTO
RENTAL
%5 errekanbioetan

bixkiak
%10eko deskontua